


Herririk Herri |4|
2009ko aurrekontuak onartu ditu
Berrizen, EAJ eta PSE-EEren botoekin

Ekonomia |10|
'Gure lanpostuen defentsan' manifes-
tazinoa deitu dau LABek biharko



Elkarrizketa |16-17|
Idoia Mendiola: "Barrenetxea-
Arando eredu handia da niretzat"

Ludotekak lau hilabeterako zabaldu ditu ateak Durangon

- > Aproba moduan martxan ipini daben zerbitzuak harrera ona daukela ikusiz gero, jarraipena izango dauela jakitera emon dabe udal arduradunek.
- > Pedro Pablo Astarloa kalean zabaldu dabe lokala, eta zerbitzua eskaintzen daroazen lehenengo hamabost egunetan 119 umek emon dabe izena.

3



Otsailaren 2an zabaldu eben Ludoteka 3tik 14 urte arteko umeentzat. Iban Gorriti

Eduardo Chillida, Luis semearen bidez ezagutu eta ulertzen

KULTURA • Otsailaren 19an, 'Artea ezaupide' zikloa osatzen dauen hitzaldietan bigarrena eskainiko dau Luis Chillidak Durangoko museoan. Bere aitaren, Eduardo Chillida eskulturgilearen lanaren inguruan berbaldia eskainiko dau Hernaniko Chillida Leku museoan zuzendariak. Datorren egueneko berbaldiari sarrera eginez, Luis Chillidagaz aitaren ibilbide eta bizitzari buruz jardun dogu.

13

Durango Judo Klubeko gaztetxoak Bizkaiko txapeldun

KIROLA • Biziberrituta jabilku Durango Judo Kluba. Orain bost urte galzorian zegoen, eta, Iñaki Salasen gidaritzagaz, gaur egun, 4 eta 13 urte arteko 70 gaztetxo dira. Bizkaiko txapeldun izan barri dira, baina, halan be, konpetizinoa barik heziketa da monitoreek jarraitzen daben lan ildo. Aurten Eskola Arteko Ligan parte hartuko dabe, eta, igaz legez, baleiteke Valentziako lehia-keta batera joatea be.

23

•Durangaldea

Elkartasun Karabana 22.181
kilogaz doa Saharara

2

•Elorrio

Kutsadura maila ezagutzeko
neurgailu finkoak gura ditue

7

•Abadiño

Martxo arte igerilekuko
erabiltzaileak Elorriora

8

•Mallabia

Euskararen Erabilera Plana
onatu dabe aho batez

6



HERRIRIK HERRI >

■ DURANGALDEA

Elkartasun karabana Tindufeko kanpamenduetara irtengo da bihar

Herria auzo elkarteak pozik agertu da herritarrek eta instituzinoek elkartasun karabanagaz bat eginez emon daben elikagai eta diru kopuruagaz

Saharar herriari laguntza bidaltzeko elkartasun karabana bihar abiatuko da Tindufeko (Aljeria) kanpamenduetara. Donostiako Garbera zentro komertzialetik irtengo dauen karabanen Durangaldeko herrietan batutako laguntza bejasoko dabe.

Eskualdean bildutako Durangoko Herria auzo elkarteak koordinatu dau. Jakitera emon dabenez, aurreko herrietarrek emondako 7.000 kilo elikagai jaso ditue. Elkarteko kideek elikagaiak batzeko kanpainan parte hartu daben ikastetxe, udaletxe, denda eta herritarrei eskerrak emon gura

izan deutseez, egin daben ahaleginagaitik. Elkarteko ordezkariak dinoenez, krisi sasoiak ez dira onenak izaten mota horretako ekimenak martxan jartzeko, baina saharar herriak elikagai horreek jasotzeko "premina handia dauka". Gaineratu dabenez, nazioartetik geroago eta laguntza gitxiago jasotzen dabenez, Aljeriako

Udalek emondako diru-laguntzagaz Tindufera bidaltzeko Renault markako trailer bat erosi dabe

desertuan bizi diren sahararrek inoiz baino gehiago eskertzen dabe karabana.

Laguntza ekonomikoa

Abadiño, Atxondo, Berriz, Durango, Garai, Iurreta, Izurtza, Mallabia, Mañaria eta Zaldibarko Udalek, aurreko 44.017 euroko diru-laguntzagaz, proiektu horrekin bat egin dabe. Diru kopuru horrekin Herrikoek kamioi bat erosi dabe eta gelditu jaken diruagaz beste produktu batzuk eskuratu ditue. Elikagaiz betetako kamioi hori Atxondoko Udaleko zinegotzi Angel Alejo gidatuko dau Alacá-

teraino. Handik Oraneko portura heltzen denean, Ilargi Erdi Gorri sahararrek Tindufera eroango dau, bertan gelditu daiten.

Eskualdetik 22.181 kilo elikagai bidaliko ditue, batez be, arroza, pasta, azukrea, indabak eta dilistak

Elikagaiak

Jaso eta erositakoagaz Durangaldek saharar kanpamenduetara 22.181 kilo elikagai bideratuko ditue. Arroza, dilistak, azukrea, atuna, pasta eta indabak dira gehien batu direnak. Horrez gainera, konpresak, arropa, zerealak eta energia-barritak be bidaliko ditue. ■ J. Guenetxea

Durangaldean

ELIKAGAIK

Arroza: 3.542 kg.
Dilistak: 3.984 kg.
Azukrea: 4.292 kg.
Atuna: 810 kg.
Pasta: 4.345 kg.
Indabak: 2.950 kg.
Beste batzuk: 2.258 kg.
Guztira: 22.181 kg

UDALEN LAGUNTZA

Abadiño, Atxondo, Berriz, Durango, Garai, Iurreta, Izurtza, Mallabia, Mañaria eta Zaldibar:
Guztira: 44.017 euro

ESKUALDEKO BILKETA

7.000 kilo elikagai

■ IURRETA

Bixente Kapanaga kaleko lanak hile bi luzatuko dira

Eguraldi eskasa dela-eta eskatu dau denpora gehiago lanok daroazen Probisa enpresak

Martxoaren 28a arteko epea izango dau Probisa enpresak Bixente Kapanaga kalean daroazen hirigintza-lanak amaitzeko. Egin dauen eguraldi eskasa dela-eta, enpresak eskatutako epeen luzapena onartu egin dau udalbatzarrek, aho batez. Baldintza orriak, gehienez, hilabete biko luzapena onartzen dau, eta epe horixe emon deuto Udalak Probisari.

Herrigunea zeharkatzen dauen kale nagusietako bat den Bixente Kapanagako hirigintza-lanak emoterako orduan bost hileko exekuzino epea zehaztu eben. Horrela, lanak urtarilaren azken egunetarako ziren gertu egoteak. Halan be, oraindino ez dabe amaitzerik izan. Atzerapenen eraginez, Udalak ez ditu diru-laguntzak galduko. Halan argitu

gura izan dau Iñaki Totorikaguen alkateak.

Oinezkoentzat leku gehiago

Abuztuan hasi zituen 1,4 milioi euroko inbertsinoa eskatu daben lanok. Oinezkoendako lekua irabaziko dabe, eremu horretan zegoen 30 aparkaleku inguru desagertuta. Gainera, Askondon hasi eta iakale osoan lau metroko espaloiak jartzea aurreikusi dabe. Besteak beste, Udalaz gaineko zerbitzuak eta ur hornidurarako hodi guztiak barrituko ditue, saneamendu sarea barne. ■ A.B.

Abuztuan hasi zituen 1,4 milioi euro eskatu daben lanok, eta urtarilaren azken egunetan ziren amaitzekoak



Denpora txarrak lanen atzerapena eragin dau. Kepa Aginako

N-634a lurpean sartzea eskatu dau Aralarrek

Iurreta parean N-634 errepidea lurperatzea eskatu deuto Foru Aldundiari Aralarrek. Bizkaiko Batzar Nagusietako Aralarreko eldunak 2007ko aforoen maparen datuak aitatuz gogorarazo dabenez, batez beste, 29.973 ibilgailu igarotzen dira errepide horretatik: "horreetatik %11,5 garraio astuna". Gaineratu dabenez, "A-8 autobidearen batez bestekoari asko hurreratzen jako; tarte batzuetan maila gailendu be bai".

Oinezkoen lotura

"Durango eta Iurretako herritarrek errepide hori zeharkatzeko egunero jasan beharreko trabek ez dabe bizimodu normala egiten laguntzen", dinoenez. "Ezin dabe amankomuneko bizimodu naturala erori eta kamioien horma arriskutsuak banatzen dituelako". Herri bien arteko oinezkoen lotura albait arinen egokitu behar dela deritzo Aralarrek, "herritarrek zarata eta arrisku bako gune bat izan daie eta ingurugiro atsegina batez disfrutatu daie". ■ A.B.



DURANGO

Ludoteka erabiltzeko 119 lagunek emon dabe izena

Lau hiletan zabalduko dabe eta ondoren zerbitzu finko bihurtzea hausnartuko dabe

Esperientzia pilotu lez lau hileko iraupena izango dauen Ludotekak harrera “oso ona” izan dau bultzatzaileen berbetan. Otsailaren 2an zabaldu eben, eta aurretiko izen-emotea 119 lagunek egin dabe. Atarte kultur produktzio eta kudeaketa enpresa arduratuko da Ludoteka-ko gestinoa eroateaz.

Hile bakotxean, adin tarte bakotzeko —3-6 urtekoak, 7-11 eta 12-14 urtekoak— talde bisortu ditue, itxarote-zerrenda eta aukeren arabera hirugarrena sortzea baztertu barik. “Otsailean 3-6 urtekoen talde biak bete dira, eta hirugarrena sortu da eskaria ikusita; 26 ume batu dira”. Ia bete dira 7-11 urtekoenak, 19 lagun batuz, eta, 12-14 urteko bik emon

Zapatuetan familia-ludoteka egingo dabe. Asteburuan 25 lagun batu ziren ekimenara

dabe izena: “Bagenkien gatzaxoa izango zela, baina, talde finkoa osotuko delakoan gagoz”. Martxo-rako 29k emon dabe izena, apirilerako 19k eta maiatzerako 26k.

PPk Ludoteka aisialdi gunea bakarrik izan beharrean zentro pedagogiko bihurtu daiten arriskua ikusten dau

Zapatuetan, familia-ludoteka izango da. Aforoa bete ezean (50 lagun) egun osoz jarduteko modua edukiko dabe bertarantzen diren gaztetxoek zein gurasoek; erabilera libre da, baina hiru umeko heldu batek egon beharko dau. Joan zen zapatuan 25 lagun batu ziren.

“Aisialdirako izan daitela”

Cristina Ibarrola PPko zinegotziak Ludotekaren jarduna zainitzeko eskatu deutso Gobernu Tal-



Orain arte harrera ona eduki dau Ludotekak. Iban Gorriti

deari: “Aisialdirako gunea izan behar dau, ez zentro pedagogikoa. Erlazinoak sortzeko, jolasteko eta ekintza ludikoak sortzeko egiteko bakarrik izan behar dau”. Horrela izan ezean Ludoteka “Hiritartasu-

naren Heziketa ikasgaiaren ordeko bihurtu daiteke, gaztetxoendako aisialdi gune izan beharrean; eta hori EAJren eta PSEren babesagaz egingo litzake”, zinegotzi popularren ustez. ■ A.B./J.D.

IV. Aukera Azoka hartuko dau Landakok

Durango eta Iurretako +Dendak merkataritza elkartek antolatuta, IV. Aukera Azoka hartuko dau, gaurtik domekara, Landako Erakustazokak. Merkataritza jarduerako hamar sektoretik gora ordezkatzuz, 24 komertzio jarriko dabe erakustokia, deneriko produktuak batuz—oinetakoak, apaingarriak, arropa, lentzeria, dekorazio edo etxeko artikulak, automozinoak, drogeriakoak, optikoak...— “preziorik onenean”. Ardoa dastatzeko aukera be izango da.

Ekitaldi osagarriak

Gaur, 17:00etan, zabalduko dabe Aukera Azoka. Aurretik Katü-Büru batukadak berotuko dau arren giroa. Zapatuan, barriz, umeendako txotxongilo ikuskizuna eskainiko dau Bihar taldeak, 17:30ean.

Domekan, Senegalgo Mlop taldearen musika eta dantza ikuskizuna izango da 12:30ean, eta, Rosa Martinez ipuin kontalaria 17:30ean. Berbaro euskara elkar-terearen eskutik umeendako taillerak be izango dira, egunero.

Gaur, 21:00ak arte egongo da zabalik azoka, eta bihar 10:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik 21:00etara. Domekan be egun osoz zabalduko dabe (19:00ak arte). Kafetegia eta aparkalekua eskainiko dira—erosketa tiketagaz ordu bi doan—, eta sariak be egingo dira zotz. Lehenengoz, poltsa ekologikoak emongo ditue. ■ A.B.

Bidegorria gauzatzeko lehenengo lanak hasi ditue

Herriko Gudarien kalean hasitako lanak Montevideo kalean jarraituko ditue

Uria zeharkatuko dauen bidegorriaren bigarren zatiko beharrak hasi ditue asteon. Denera, 248.033 euroko aurrekontua daukie, eta lau hilabete iraungo dabe. Askatasun Etorbidean jarraituko ditue Herriko Gudarien kalean hasitako lanak eta, ondoren, Montevideo kalean jarraituko dabe; Ermodo eta Uribarri kale bitartean. Kurutzia-ga eta Zeharmendietako egokitze lanekin amaituko ditue bidegorriaren zati horretako beharrak.

Herriko Gudarien kalean aparkatzeko leku batzuk kendu egin ditue, lanen eraginez. Anbulatorio zaharraren aurrean dagozen kopuru bat itzi egin dabe “behin-behinean”, osasun zentroko erabiltzaileendako.

Hirugarren zatia lehiaketara

Hirugarren zatia lanak asteon urtengo dabe lehiaketa publikoan, udal arduradunen berbetan. San Inazio Auzunetik Landakoraino doan zatia 860.000 euroko inber-



Herriko Gudarien kalean ekin deusie lanei.

tsinoa da; Kurutzia-gaz lotzeko adarra be batzen dau horrek. Aurtun izan beharko dabe prest hori.

Lehenengo zatia doa atzeratuen. Saihesbidearen albotik, San Roke ingurura eta Tabira —Izur-

tzarako bidea hartzeko— lotzen ditu horrek. Egitasmoa aurkeztuta dago, baina, Udalak Aldundia-gaz dihardu negoziatzen. Uritik kanpora doa 1.602.836 euro beharko dituen bidegorri zati hori. ■ A.B.

EAJren aurrekontu plana “pobrea” dela dino PSE-EEK

EAJk aurkeztutako proposamena “imaginazio bakoa” dela azpimarratu dabe sozialistek

Gobernu Taldeak 2009rako aurkeztutako aurrekontu planaren inguruan daukan eritzia ezagutzera emon dau Durangoko PSE-EEK. Pilar Rios zinegotziaren esanetan, “EAJk aurkeztutako zirriborroa, krisi sasoia bizi dogun arren, pobrea da”. Gaineratu dauenez, Alderdi Sozialistak joan zen urtean proposatutako hainbat proiektu bareratu ditue jeltzaleek aurtengo aurrekontuetan, eta, horrexegaitik, “imaginazioa falta jakela” deritzoe. 2008an be sozialistek dinonez ez dabe “EAJren proiekturik” ikusi. Ikusi dabena Udaleko erakuntza lanen garestitzea —2 milioi euro baino gehiago— izan dela azpimarratu gura izan dau Riosek.

Otsailaren 26rako, oposizi-onoak gura izanez gero, Gobernu Taldeak aurkeztutako zirriborroari emendakinak aurkeztu ahal izango jakoz. Sozialistek jakitera emon dabenez, Gobernu Taldea aurrekontuak adosteko euren-ana ez da gerturatu; “ez daukie PSE-

EErekin adostasunetara heltzeko interesik”, dinoe.

Emendakinak

PSE-EEK aurkeztu dituen emendakinen bitartez lan eta formazio programetarako diru-atala handitzea eta babeseko etxebizitzaren proiektuetara Durango Eraikitzen bitartez 900.000 euro bideratzea proposatu dabe. Beharri-za daukien familiei laguntza handitzea, gizarte laguntzaile bat eta

Otsailaren 26ko osoko bilkuran eztabaidatuko dabe 2009rako proposatutako aurrekontu plana

merkataritza bultzatzeko teknikari bat kontratatzea be eskatzen dabe. Elkarrekin sinatutako hitzarmenak, Kultur Etxearen proiektua eta parking disuasorioa sortzea be proposatu dabe. ■ J.G.

BERRIZ

EAJ eta PSE-EEren botoekin onartu ditue aurrekontuak

Ezker abertzalearen ustez, aurrekontuak oker dagoz oinarritik bertatik



Haurreskola osatzeak hartu dau aurtengo aurrekontuetako diru-atalik handiena.

Aurtengo ohiko aurrekontuak onartuta dagoz, PSE-EE eta EAJren aldeko botoekin. Ezker abertzaleko lau zinegotziek eta EAKoak, aldiz, kontra bozkatu eben. Botaketa egin aurretik, luze eztabaidatu eben Gobernu Taldeak aurkeztutako proposamenaren gainean.

Ezker abertzalekoek aurrekontuak osatzeko gauzatze egoera –2008ko kontuak jasotzen dituen txostena– beharrezkoa dela esan eben, eta eurek egondako azken udalbatzarrean oraindino egin barik zegoenez, EAJri galde-tu eutsien zertan oinarritu diren aurrekontuak osatzeko.

Estimazinoak “txarto eginda” ei dagoz eta aurrekontuak “oinarritik” huts egiten ei dabe, gainera. “Sarreraren aurreikuspena, errealitatean emoten den baino baxuagoa da, eta gastuena, barriz, oso goitik emoten da. Urte amaieran soberakin handia izateak argi izten

dau aurrekontuak txarto eginda dagozela”. Gainera, krisi sasoiaren bost milioiko soberakina izatea ez dela normala esan eben.

Jabi Azpitartek azaldu eban aurrekontuak osatzeko, hainbat sarrera zenbatu eta horreen estimazinoa eginda sarrera horreek gastuetara ajustatzen saiatu direla. “Dirua atal denetan banatu dogu, 2009ko lehen lau hilabeteetan Udaleko adar guztien jarduerara bermatuz. Hortik aurrerakoa soberakinekin osatuko da”.

Horrez gainera, gogoratu eban Udalak urtero aurreikusi ezin daitekeen dirua be jasotzen dauela; instituzino ugarietatik hartutako diru-laguntzak, hain zuzen be. Beraz, sarrerak behetik estimatu eta gastuak puzten zitueenik gezurtatu egin eban.

Sozialistak alde

Koldo Mendez sozialistak bere baietza arrazoitu eban: “Ez nago

igaz baino aldekoago edo kontra-koago. Baina alderdi estrategia da krisiagatik ahal den udal gehiengotik aurrekontuak aurrera ateratzea.”

Ia sei milioi, guztira

Aurtengo ohiko aurrekontua 5.822.200 eurokoa da (SUSA Berrizko hirigintza elkartearena barne). Inbertsinorik handiena haurreskolakoa da. Bi urterako proiektua denez, aurtengo horri jagokoa atala sartu dabe. Auzobideak be konponduko ditue; aurtengo, segurutik, Sarriakoa egingo dabe. ■ J.D.

Inbertsino nagusiak

Haurreskola		429.600 €
Auzobideak		22.800 €
Entziklopediak		3.000 €
(Udalerako)		
Berrizburu		3.600 €
+ Inbertsio gehiago egingo ditue soberakinekin		

Modesto Arana musikaria jaio zela ehun urte dira

Urteurrena gogoratzuz, Bizkaiko Koral Elkarteko abesbatzak kontzertua emongo dau gaur

Berrizko Udalak Modesto Arana-ren jaiotzaren –otsailak 12– lehen mendeurrena ospatuko dau gaur. 20:30ean egingo den ekitaldian, San Juan Ebanjelaria elizan. Horregaz batera, otsaila amaitu bitartean, Kultur Etxean Berrizko musikariaren argazki eta partiturak ikusgai izango dira. Ildo horretatik, liburuxka biografikoa be banatuko dabe.

Otsailean zehar Aranaren gaineko erakusketa izango da Berrizko Kultur Etxean

Modesto Arana omentzeko kontzertuan, Bizkaiko Koral Elkarteko Euskeria abesbatza izango da. Kontzertuko azken kanta, *Andikoa ama*, Valentin Lasuen Berrizko organistak eskainiko dau koruagaz batera.

Modesto Arana San Lorenzo auzoko Kamiñerua base-rrian jaio zen (aspaldi bota eben

baserria). Eduardo Gorosarri eta Bernardo Gabiolagaz organoaren sekretuak ezagutu zituen.

Gerra Zibila eta gero, kartzelan sartu ebengudarien batailoiko kapilau izateagaitik. 1944tik 1960a arte Bilboko Jesuiten Egoitzako organista izan zen. 1949an Bizkaiko Koral Elkarteko abesbatza sortzen hasi zen. Ondoren, 50eko hamarkadan kontzertu asko prestatu zituen, Euskal Herrian zein Espainian.

Gaixorik zegoela eta, Aranak zuzendari lanak itzi egin behar izan zituen, derrigorrez. 1960an Koraleko ohorezko zuzendari izentatu eben. 1957an, berriz, San Fernandoko Arte Ederretako Errege Akademiako akademiko izendatu eben. ■ J.D.

Bere obra ezagunen artean dagoz, besteak beste, ‘Negar ta Negar’ eta ‘Andikoako Ama’

ZALDIBAR

Interneteko euren gunea daukie Gazte Lekukoek

Igazko urrian egin eben Gazte Lekuaren irekiera jaia, eta bloga ipini dabe orain martxan

Herriko 30 bat gaztek parte hartu eben igazko urrian ospatu eben Gazte Lekuaren irekiera festan. Ordutik, Udaleko Euskara Zerbitzuak bultzatu eta Txatxilipurdi elkarteak kudeatzen dituen tailer eta ekintzak burutzen ditue gazte zaldibartarrek astebururo.

Gazteen hartu-emonak euskara hutsean izan daitezela da Gazte Lekuaren funts nagusia, eta jomuga horregaz ipini barri dabe martxan Zaldibarko Gazte Lekuaren elkartzaren diren gazteen ibilera eta egitasmoen barri Internetean emoten dauen gunea be: <http://www.blogari.net/zaldigaztele-gunea>.

Bariku, zapatu eta domeka arratsaldeetan Gazte Lekuaren izaten ditueen askotariko tailer, ikastaro, hitzaldi eta ekintzen isla da Interneteko gunea horretan gazteek jasotzen dabena.

Gazte Lekuaren ditueen tailer, hitzaldi eta ekintzen barri jasoko dabe euren blogean

Eskolan, fonoteka dagoen espazioan elkartzaren dira 12 eta 16 urte bitarteko zaldibartar asko asteburuetan, eta gura dabenero baliatzeko espazio birtuala be eskura daukie orain. ■ I.E.

EGIA AROZTEGIA
EBANISTERIA

ZUZENENKO SALMENTA

Sukaldeak - Ateak - Armairuak neurria - Oholtzak

Tel. eta Faxa: 681 77 46
Etxea: 620 25 65 - Mugikorra: 989 70 37 54

Taldea kalea, 54
48200 DURANGO

UNDARRI BIKE

Biziklora salmenta eta konponketa.

Bidebarrieta, 5 - 1.º solairua
48215 IURRETA

94 681 78 08
www.undarribike.com

Durangaldeko Baserritarren Elkartea

DIBA
KOOPERATIBA

Murueta, 6
Tel.: 94 681 87 92
48200 ABADIÑO BIZKAIA

BEHERAPENAK

MERKATARITZA SARI NAZIONALA 2008

**DESKONTU BEREZIAK
SAIL GUZTIETAN
DOAKO FINANTZIAZIOA**

BAUTISTA
MUEBLES Y DECORACIÓN
LLODIO - ABADIÑO
www.bautistamuebles.com



599,00 €



569,00 € tik aurrera

SOMIER ELEKTRIKOA ETA LATEXEZKO KOLTXOIA (90x190)



1.190,00 €

330,65 € tik aurrera

BIOFORMA KOLTXOIA



950,00 €

250,75 € tik aurrera

KOLTXOI BISCOELASTIKOA



599,00 €



OPARIA: BURUKO BISCOELASTIKOA



899,00 €



570,00 €



295,00 €



BEHERAPENAK: URTARRILAREN 12tik MARTXOAREN 11 ARTE

**ADITUAK GARA SUKALDE ETA EGONGELAK
EGITEN DUELA 40 URTETIK HONA**

GURE ADADIÑOKO ERAKUSKETA ETA GURE DESKONTU BEREZIAK
EZAGUTZERA GONBIDATZEN ZAITUGU

Urbite poligonoa, 4.eraikina, pab.2 ABADIÑO Tel. 94 681 35 19

MALLABIA

Euskararen erabilera indartuz

Euskararen Erabilera Plana 2012a bitartean garatu gura dau Udalak

Euskararen Erabilera Normalizatze Plana onartu barri dau udalbatzak, aho batez. Plangintza horrek euskara udal jardueraren sortze hizkuntza bihurtu dau. Horretara, udal esparruko jarduna euskaraz gauzatzea erraztuko dau.

Udalaren laguntasuna jasotzen daben herriko kultur, kirol eta aisialdi taldeek udalbatzak finkatutako hizkuntza eskakizunak bete beharko ditue. Udalaren diru-laguntzek herriko taldeen jarduna euskaraz iragartzea eta gauzatzea bultzatuko dabe. Gainera, Udalak herriko taldeen ekitaldiak

Udalaren diru-laguntzek herriko taldeen jarduna euskaraz iragartzea eta gauzatzea bultzatuko dabe

Hirigintzako udal baimenak eskatzen ditueen enpresei errotulazinoa euskaraz edukitzea eskatuko jake

euskaraz aurrera eroaten direla bermatuko dau; ume eta gazteei begira antolatutakoak, batez be.

Era berean, hirigintzako udal baimenak eskatzen ditueen enpresei errotulazinoa, gitxienez, euskaraz edukitzea eskatuko jake. Udal instalazinoak erabiltzen ditueenak, gainera, gauzatutako ekitaldian euskararen presentzia bermatu beharko dabe.

Komunikazino hizkuntza

Udal beharginek herritarrekin ahoz beti euskaraz egin arren, idatzizko komunikazinoan euskarak lekugitxi dauka. Horregaitik, Udalak herrita-

rrak euskaraz informatzea bereziki landuko dau, eta gainerako administrazioen gaztelera hutsezko idatzirik ez dau onartuko.

Izan be, 2008an idazkien %46 erdara hutsez heldu zen. Udalak igaz ateratako idazkien %91, ordea, elebitan argitaratu zen eta gainerako %9 euskara hutsez, barne jarduera euskalduntzeko udal beharginek egindako ahaleginaren isla. Bide beretik, eurentzako etenik bako prestakuntza ikastaroak aurreikusi ditu Planak.

Udalak, azkenik, kanpoko kontratazinoetan be hizkuntza eskakizunak esleipen-kontratuetarako oinarritzotzat joko ditu; hartu-emonak euskaraz gauzatzea be bai. ■ Maria González

GARAI

Otea-Loranek ez dau epaia errekurrituko

Otea-Loran elkarteak ez dau errekurrituko, azkenean, urtarri-lean auzitegiek bere kontra ebazitako epaia. Domekan egin eben elkarteko asanblada, eta hori erabaki eban bazkideen gehiengoak.

Bi urte Garain errolatuta zegoen herritar batek elkarteko bazkide izateko eskaera egin eban, eta Otea-Loranek ezezkoa emon eutsan, 2006an baldintza barria zehaztu ebalako: 7 urtez errolatuta egotea. Erabaki hori, baina, erregistratu barik zeukien elkartekoek. Arazoaren aurrean, bi aldeak ez ziren ados jarri eta prozedura judizialari ekin jakon.

Elkarteak epaiketa honetan azkenerraino heltzea aurreikusi eban, 2006ko akordioa errespetatzeko

Otea-Loran elkarteak epaiketa honetan azkenerraino ailegatzea aurreikusi eban hasieran, 2006an adostutako akordioa errespetatzeko helburuz. Euren arabera, baina, “dena geunkan galtzeko, eta diru gehiago galtzeak ez eban merezi; horregaitik aldatu dogu jarrera”.

Sententziak dinonez, epaiketa prozesuko gastu guztiak Garaiko elkarteak ordainduko leukez. Gainera, eskatzaileari euro bat ordaindu beharko leuskio, sinbolikoki. Eskatzaile horrek argi itzi gura izan dau “momentu baten be ez” deustal kalterik sortu gura izan elkarteari: “Beti saiatu izan naz akordio batera heltzen”. Bere ustez, bere sasoian “legearen barruan eez zegoen” erabaki batzuk hartu ziren.

Estatutu barriak orain dela hiru aste errolatu zituen elkarteak, eta domekan akordioak berretsi ziren. Epaia onartu eta ez dabe “iritzien joko errezean” sartu gura. ■ M.O.

Eskatzaileak argi itzi gura dau ez deustala kalterik eragin gura izan elkarteari

IZURTZA

Giro hotz eta bustia izan eben jokalariek aurkari

Bariku eta zapatuan jokatu eben Izurtzako gazteek eratutako txapelketa



Eskualdeko gazteek parte hartu dabe txapelketako bigarren aldian. Kepa Aginako

Joan zen barikuan 18:00etan ekin eutsien parte-hartzaileek txapelketari, eta, hain zuzen be, hurrengo eguneko finalera ailegatu eta irabazi eban bikoteak jokatu eban lehenengo partidua. Goizaldeko hirurak pasatxo arte jokatu zitueen parte-hartzaileek partidua barikuan, eta finalaurrekoa eta finala izan ziren zapatuan.

Irabazle, barikuetan Axpeko frontoian entrenatzen daben lagunatariko bi izan dira: Rober eta Oiesek osatutako bikotea. Rober Uriarte eta bikotekideak irabazi dabe aurtengo 150 euroko saria.

Bariku arratsaldean hasi, eta goizaldeko hirurak pasatxo arte aritu ziren txapelketako partidua jokatzeko

Uriartek azaldu deuskunez, eskuan ebakuntza egin deustiala eta eskuz ezin dau jokatu hilabete barru arte, eta horregaitik dihardu aspaldian erraketagaz jokatzen. Bariku arratsaldean hasita, etenik barik jokatu zitueen partidua, eta Uriartek dinonez, “hotza eta euria” izan ziren txapelketaren ezaugarri nagusiak.

Matienako Sugar eta Ibaik jokatu eben irabazleen kontrako finala, eta 20an itzi zitueen aurtengo txapelketako irabazle izan diren Rober eta Oiesek. ■ I.E.

IKASTEN IKASTEKO PREST!

ENPRESEKIN ELKARLANEAN ARITZEKO PREST!

AURRETIK JOATEKO PREST!

...eta gainera, aukera gehiago.

UNIBERTSITATEA BIZITZEKO PREST!

MONDRAGON UNIBERTSITATEA

www.mondragon.edu/prest



ATXONDO

Goi-tentsinoko kableak lurperatzeko lanetan dabilz

Udabarrirako amaituta gura ditue tentsinoko kableak lurperatzeko lanak

Igazko aurrekontuetako 180.000 euro bideratu zituen Udalak herrigunean zehar airean igarotzen diren goi-tentsinoko kableak lurperatzeko; diru-kopuru horregaz ekin eutsien igazko urtean. Urte honetarako onartu ditueen aurrekotuetan be beste horrenbesteko diru-atala (180.000 eurokoa) gorde dabe lanotarako. Apata zeharkatzen dauen goi-tentsinoko lineak, beste herri eta auzo askotan lez, Atxondora be airetik eta torre eta zutoinen bitartez barik energia elektrikoak lurpeko hodietan ekarri daian egingo ditue aitatutako lanok.

Barraski auzoko etxeak altxatzearekin eutsienez, leku horretatik igarotzen ziren goi tentsinoko kableak lurperatzeko lanak egin zeiezen baldintza ipini eben eraikitzaileek, Cobos alkateak azaldu deuskunez. Etxebizitzak eraikitze lanetan –esaterako, garbiak lanean dabilzen lekuan– oso

Igaz 180.000 euro bideratu zituen Udalak lanotarako, eta beste horrenbesteko diru-atala gorde dabe aurten

arriskitsuak direla arrazoitu ei eutseen obraren arduradunek. Horrez gainera, Dabid Cobos nabarmendu dauenez, Apatako bizilagun guztien onurarako da lanon atzean dagoen asmoa; estetikoki zatarra izateaz gainera, bizi zaren lekuan goi-tentsinoko kable bat izateak osasunerako dituen ondorioak kaltegarriak direlako. Igaz hasitako lanak udabarrirako amaitzea itxaroten dabela be aurreratu deusku Dabid Cobos alkateak, eta horrenbesteko aurrekontuko lanak gaur egun ezinbesteko diren segurtasun baldintzak emongo dituela. ■ I.E.

ELORRIO

Zenitatik herrira ur-hornidura barrizteko lanak adjudikatu ditue

Lanak aprobetxatuz, Argiñeta eta herrigunea lotzeko oinezkoendako espaloia egingo dabe



Hoditeria zaharra kentzen eta barria ipintzen dabilz.

Argiñeta inguruan dagoen ur-biltegitik herrigunera doan ur-hornidura barrizten dabilz. Orain dagoen hoditeria aldatu egingo dabe, zaharkituta geratu delako. Zenita auzorainoko hodiak aldatzeko lanak nahiko aurreratuta dagoz dagoeneko. Zenitatik herrigunera lanak, barriz, oraintsu adjudikatu ditue. 270.000 euro bideratu ditue proiektu hori osatzeko, eta bost hilabeteko epea izango dabe lanak amaitzeko. Aldi bitan banatutako lan horreek Argiñeta eta herrigunea lotuko dituen espaloia egiteko be erabiliko ditue. Izan be, tarre horretan jente asko ibiltzen da gora eta behera oinez, eta udal arduradunek komenigarri ikusi dabe oinezkoen segurtasuna bermatuko dauen espaloia egitea. Guztira, kilometro bi inguruko luzera edukiko dau espaloiak.

Proiektuak 270.000 euroko aurrekontua dauka eta bost hilabeteren barruan gauzatuta egon behar da

Oinez jente asko dabilenez, komenigarri ikusi dabe Argiñetarainoko espaloia

Proiektu hori 10 urtera begira osatu eben Berritze Planaren barruan kokatuta dago. Plan horren helburua urtean proiektu bat edo bi gauzatzea da, eta apurka-apurka herriko azpiegiturak barrizten joatea. Igaz Argiñetatik Zenitarako lehen fasea gauzatu eben, eta Aramiño auzoan be barriztapenak egin zitueen. Aurten proiektu bakarra eroango dabe aurrera Planaren barruan, tamainaz igazko biak adinakoa dena. Aldunditik diru-laguntzak jasotzeko deialdia zabalik dago. Udalak aurkeztu ditu aurkeztu beharreko dokumentuak eta datozen egunetan laguntza jasotzea itxaroten dabe. ■ J.D.

OTXANDIO

Gaztetxea konpontzeko azken lanak hasi ditue

Gazteek eurek goiko solairuan ezkaratza, musika gela eta rokodromoa atonduko ditue

Gazte Asanbladak aurten Gaztetxea konpontzeko lanak amaituko ditu. Horretarako, Bizkaiko Foru Aldundiaren eta Eusko Jaurlaritzaren 138.302 euroko diru-laguntza jaso eben. Gaztetxe barriak “zenbait ekimen barri martxan ipintzea ahalbideratuko dau”, azaldu dau Gazte Asanbladak. Gaztetxea konpontzeko lanari 2007an ekin eutsien gazteek. Dagoeneko, teilatua barriztu, fatxada garbitu, eta, beheko solairuan tabernako barra ipini eta bigarrenera doan eskailera konpondu dabe. Aurten, lehenengo solairua atondu eta ber-

tara heltzeko traba arkitektonikoak kenduko ditue. Solairu horretan ezkaratza, musika gela, rokodromoa eta bulegotxoak ipiniko ditue. Horretara, “ezkaratzak afariak emoteko aukera eskaini-

Gaztetxe barriak ekimen barri asko martxan ipintzea ahalbideratuko dau

ko deusku, adibidez, eta musika taldeek Gaztetxean entsaiatu ahal izango dabe, inori traba egin barik” azaldu dabe. ■ Maria González

Kutsadura maila urte osoz neurtu daien gura dabe

Eusko Jaurlaritzari neurgailu finkoak ipini daizen eskatzeko beharrezko tramiteak egingo ditue

Eusko Jaurlaritzak 2008ko azaroaren 18an Elorrioren aire kutsadura neurtzeko tresna finkoak jartzea onartu eban. Eskari hori EHA (Elorrioko Herritarren Aukera) taldeak landutako proposamen baten ondorio izan zen, eta Aralar taldeak aurkeztu eban eztabaidarako Eusko Legebiltzarrean.

Urteko aldi konkretuetan egiten diren neurketek itzitako datuak kezkarriak direla dino udalbatzarrak

Horreek horrela, EHAK mozi- no baten bitartez eskatu eban “egin behar diren lanak edo eskariak martxan” ipintzeko, Eusko Jaurlaritzak neurgailu finkoak ipini daizen. Mozinoa aho batez onartu eben. Izan be, orain urtean denboraldi batez bakarrik neurtzen dabe Elorrioko kutsadura maila.

Ondoren, emaitzak Udalarik jakinarazten deusiez, eta, udal arduradunen arabera, datuak kezkarriak dira. Beraz, beharrezko ikusten dabe kutsadura urte osoan zehar neurtuko leuken tresneria finkoa ipintzea.

Erantzukizunak nori eskatu Mari Karmen Muñoz zinegotzi sozialista mozinoaren alde agertu zen, baina Gobernu Taldeari galdetu eutsan zer neurri hartuko dituen eta nori eskatuko deusaz erantzukizunak. Niko Moreno alkateak erantzun eutsanez, zer ildo jarraitu jakiteko lehenengo eta behin datu osatuak jakin behar ditue. EAJ alderdia be alde agertu zen, datu osatuak jakitea garrantzitsua dela argudiatuz. Baina horren ondoren egoera egoki kudeatu beharko dela esan eban: “Azken helburua, enpresen eta herritarren arteko elkarbizitza bilatzea da”. ■ J.D.

• Oinetako patologiak
• Neurria egindako plantillak
• Oinetako beste hainbat gaitz

IMQ AEGON BERSANET SANITAS
Herriko gudarien kalea, 10 - behe
48200 DURANGO
Tel./Faxa: 94 621 54 04

Podología 100. Elorrioko

ABADIÑO



Martxoan arte jardungo dabe konponketak egiten. I.Esteban

Hilabete iraungo dabe konponketek

Elorrioko igerilekuak erabili ahal ditue abonatuak

Martxoko lehenengo aстера arte iraungo dabe orain aste bi haizeteak Astolako igerilekuan sortu zituen kalteen konponketa lanek. Konponketek irauten daben hilabete honetan, Gobernu Taldeak dinonez, Abadiñoako Udalak Elorrioko agaz sinatu dauen akordioaren arabera, Elorrioko igerilekuan izango dabe Astolako igerilekuko abonatuak igerilekua erabiltzeko aukera.

Urtarrilaren 23ko haizeteak igerilekuan eragindako kalteak konpontzeko lanak martxoan arte iraungo dabe

Astolako igerilekuaren estalkia eta alboetako beiratea apurtu zituen urtarrilaren 23ko haizeteak, eta, orduetik itxita dago igerilekua. Zerbitzua emoteko gitxieneko segurtasun neurriak betetzen ez zirenez, itxi egin eben igerilekua. Bidalitako oharrean Gobernu Taldeak azaldu dauenez, igerilekuko erabiltzaileei egunotan sortutako eragozpenak ordaintzeko modua aztertzen dabil Udalak.

Sortutako kalteak erreparatzen dihardueen bitartean (martxoaren lehenengo aстера arte), Elorrioko igerilekuan izango dute Abadiñoako igerilekuko erabiltzaileek kirola egiteko aukera. ■ I.E.

MAÑARIA

Eguzki-energia bidezko farolak Aldegoiena auzoan

Barikuko udalbatzarrean onartu eben egitasmoa

Aldagoiena auzoan eguzki-energia bidezko kale-argiteria ipintzea jasotzen dauen proiektua onartu eben joan zen barikuko udalbatzarrean. Aho batez onartu eben, Energiaren Euskal Erakundera egitasmoa helarazo eta beronen finantziatzina bideratzeko diru-lagun-

Energiaren Euskal Erakundera egitasmoa helarazo eta diru-laguntza eskaria egitea onartu dabe aho batez

Aurkeztutako lau proiektuak onartu ditue

Estatuko Tokiko Inbertsino Fondoa jasotzeko helburuz Abadiñoako Udalak aurkeztutako egitasmoak onartuak izan direla jakinarazo dau, asteon, Jose Luis Navarro alkateak. Lau dira diru-laguntza jasotzeko esperantzaz Udalak aurkeztutako egitasmoak, eta guztiak gauzatuko ditue 2009 urte honen barruan.

Batetik, Tokiko Inbertsino Fondotik diru-atalik handiena bertara bideratuta, Matienako Juan Antonio Untzueta kaleko egokitzapen lanak egingo ditue, 619.346 eurogaz.

Diru-atalik handiena, Matienako Juan Antonio Untzueta kalea atontzeko bideratu dabe: 619.346 €

Lau eta bost hilabete arteko exekuzino-epeak ditue lau egitasmoek

Sagasta auzoko saneamendua eta argiteria hobetzera bideratuko ditue, bestetik, Estatu Fondoak egokitutako 204.317 euro, eta Zelaietako eskolako kanpokaldeko estalkia konpontzera beste 118.773 euro.

Amaitzeko, Tokiko Inbertsinoetarako Estatu Fondotik jasoko ditueen 321.165 euro, jubilatuen etxea hartuko dauen eskola zaharra atontzera bideratuko ditu Udalak.

Lau egitasmoak gauzatzeari ekiteko, lau eta bost hilabete bitarteko epea izango dau Udalak, eta Gobernu Taldeak nabarmendu dauenez, berrogeitik gora lanpostu sortuko dira herrian, lau obra horreek irauten daben bitartean.

tza eskaria egitea. Guztira, 43.000 euro pasatxoko aurrekontua da energia barritagarrien erabilera sustatzeko sortutako energiaren erakundetik jasotzea itxaroten daben diru-lagutzagaz estali gura daben gastua.

Fruitu-arbolen ingurukoa
Otsailak 27an atal teorikoa eta otsailaren 28an praktikoa izango dituen *Fruitarbolak hazi eta inaus-teko* ikastaroan izena emon gura dabenek otsailaren 22a baino lehenago egin beharko dabe, gogorazaz dabenez, Udaletxean. ■ I.E.

DURANGO

Santa Susanako monastegiko azken lekaimeak joan dira

Santa Susanan zegozen zazpi lekaimeek eguaztenean itzi eben monastegia. Agustindarrak XVI. mendetik izan dira Durangon; 400 urtetik gora, beraz. Agur ekitaldira Blázquez gotzaina etorri zen, eta 400 bat durangarrek lepo bete eben monastegia.

Vicente Zabala jesuitaren idazkien arabera, Abadiñoako emakume bi izan ziren agustindarren arropa jantzi eben lehenengoak 1593. urtean Santa Susana monastegian.

Los Rios aldizkaria egiten dabenak hantxe batzen ziren; Caritas Tabirak batutako arropak be hantxe gordetzen zitueen.

Musika eskolak Eguen Zuriko kontzertua antolatuko dau

Ohiturari eutsiz, Bartolome Ertzilla musika eskolak Eguen Zuriko kontzertua eskainiko dau datorren egunean. Otsailaren 19an arratsaldeko 18:00etan jarri dabe hitzordua musika eskolako areto nagusian (Montevideo Etorbidea, 7). Ikasleek ikasturtean zehar ikasi dabena jendarean erakusteko aukera ezin hobea izango dabe. Bartolome Ertzilla musika eskolako arduradunek ekitaldira joateko deia egin gura izan dabe, Durangoko musikazale guztiak ekitaldian parte hartzera gonbidatuz. Jakin eragin dabenez, “urtero egiten dogun Eguen Zuriko saioa oso entretenigarria izaten da”. Ikasleek gainera, irakasleek be kantatuko ditue Eguen Zuriko koplak.

D3M lege kanpo iztearen aurkako manifestazinoa



Joan zen barikuan, D3M lege kanpora izteko arriskuaren aurrean, manifestazinoa egin eben Durangon *Oztopo guztien gainetik aurrera* lelopean. Auzitegi Gorenak asteon itzi ditu D3M eta Askatasuna hauteskundeetatik kanpora. Biek Auzitegi Konstituzionalera errekurritu dabe. Konstituzionalak gaur gauerdia aurretik berretsi edo ezeztatu behar dau epaia.

BERRIZ

Hiltegixek 10 urte bete ditu

Gaur lako egun baten, orain 10 urte gazte talde batek Hiltegixe gaztetxea jarri eban martxan. Urtemuga hori gogora ekarri guran, gaztetxeko kideek hainbat ekitaldi antolatzen dihardue. Urteurren eguna gaur izanda, txupinazoa jaurtiko dabe arratsaldeko 19:30ean. Ondoren, luntxa eta clown emonaldia be izango dira Hiltegixen.

Zapaturako egun osoko egitaraua prestatu dabe. 13:00etan ‘Marianitoa gaztetxetik hasita’ eta, ondoren, bazkaria egingo dabe frontoian. Monologo emanaldia be izango da. Gaueko 22:30etik aurrera Trapatoni Circus Band eta Aritz Sound Systemek kontzertua eskainiko dabe.

BERBAZ >

“Atxarteren sorreran instituzinoek, familiek eta herritarrek bat egin eben”

Gorabide elkarteak 25 urtean dihardu Atxarte egoitzan, “egoiliarren bizi kalitatea hobetu guran”



Iban Gorriti

Pili Basoa •

■ 56 urte

■ Gorabideko egoitza zerbitzuen zuzendaria

Atxarte egoitzak mende laurdeneko ibilbidea egin dau. Urtemuga gogora ekarri guran, adimen urriko pertso-
nen alde beharrean diharduen Gorabide elkarteak ospa-
kizuna antolatu eban joan zen astean. Egun berezia izan zen
zentroko egoiliarrendako, baita euren familiendako be. Pili
Basoa Gorabideko egoitza zerbitzuen zuzendariak Atxarteko
lehenengo pausuak oso gertutik ezagutu zituen sasoi hare-
tan, eskualdeko familien gizarte laguntzailea izan zen-eta.

*Atxarte zentroa martxan jartze-
kozelan emon zenduezen lehenen-
go urratsak?*

Zentroa Abadiñon eraiki ahal
izateko lursail batzuk permuta-
tu, saldu eta emon zitueen.
Lehenengo gestinoak egin eta
Jaurlaritzagaz eta Aldundia-
gaz hitzarmena sinatu gen-
duen, plazen adjudikazioa
eta ordainketa egiteko.

*Beraz, instituzinoetatik babes
handia izan zendueen.*

Aldundiak plazak ordaintzeak
ikusuntu ekonomikotik lasai-
tasun handia emon euskun.

Zentroak zein garapen izan dau?
Gorabidek erizpide berberak
ditu bere zentro eta zerbitzu
guztietan. Martxan jarri
zenean eredu psikopedagogi-
koan oinarritu ginen eta,
ondoren, 90kadan, bizi kalita-
tearen eredura jo dogu.

Eredu hori zertan datza?

Pertsona baktxaren beharri-
zanen arabera lan egiten dogu.
Egoiliar baktxaren gustu eta
zaletasunak aintzat hartzen
doguz, eta horregaz erabiltzai-
le baktxaren etorkizuna pla-
nifikatzen dogu banan-banan.
Plan hori ez dau lan-talde pro-
fesionalak bakarrik egiten.
Erabiltzaileak gaitasuna
badauka bere etorkizunaz ber-
ba egiteko, haren eritzia be
kontuan hartzen da; baita bere
familiarrena be.

*Atxarte martxan jartzea lorpen
handia izan zen.*

Bai, hainbat arrazoiengaitik.
Familien lana ezinbestekoa
izan zen proiektua errealitate
bihurtzeko. Elkarteko kide
ziren Durangaldeko familiak
mobilizatu egin ziren zerbi-
tzu hori eskualdean sortu zei-
ten. Erakunde publikoen inpli-

kazinoa be garrantzitsua izan
da, alde ekonomikotik estua-
sunik ez pasatzeko. Inguruko
herritarrek be proiektuan
lagundu dabe. Horixe da Atxar-
te zentroak urteotan lortu
dauena: familiak, instituzino
publikoak eta gizarteak bat
egitea zentroa martxan jarri
ahal izateko.

*Atxarte egoitza zenbat erabiltzai-
legaz jarri zendueen martxan?*

60 lagunegaz hasi ginen. Orain
69 dira. 68 plaza behin-beti-
koak dira, eta bat aldi batera-
ko da.

*Kopuru horrekin inguruko beharri-
zanari erantzuten deuto?*

Bizkaia osoko erabiltzaileak
daukaguz, eta ez dogu plaza
kopurua handitzeko beharrik
ikusten. Gaur egungo joera
zentro txikiagoak sortzea da,
25 plazatik beherakoak.

Zer zerbitzu eskaintzen doze?

Oinarritzko zerbitzuetan osa-
suna, higiea eta elikadura
aitatu geinkez. Erabiltzaileen
jarraipen fisiko eta psikologi-
koa be egiten dogu. Egoiliarrek
laguntza handia behar dabe-
nez, aisialdia antolatzen deu-
tsegu, tailerrekin eta bestela-

“60 erabiltzaileguz
ekin geuntsan
lanari. Gaur egun,
69 lagun dagoz”

“Boluntarioek
aisialdiko ekimenen-
tan dihardue.
Gainontzekoak
profesionalak dira”

“90kadan bizi
kalitatean oinarri-
tutako zerbitzua
eskaintzeko apus-
tua egin genduen”

ko ekimenekin. Eguneke zentroa be badaukagu.

*Zenbat pertsonako lan-taldea
daukazue?*

Zuzendaritza, koordinazio,
administratzaio, mantenimen-
du eta garbitasuneko perso-
nez gainera, beste zentro
batzuekin osasun arloko hiru
profesional konpartitzen
doguz. Osagilea astelehenetik
barikura izaten dogu hemen.
Horrez gainera, 55 zaintzailek
dihardue lanean. Horreexek
dira lan-taldea osatzen daben
profesionalak.

*Joan zen asteko urtemuga ospa-
kizunean boluntarioen lana
eskertu zendueen?*

Boluntarioek aisialdi zerbi-
tzuan lan egiten dabe. Gai-
nontzeko zerbitzuan profesio-
nalak daukaguz lanean.

*Lupe Espinosa boluntarioaren
kasua oso berezia da.*

Atxarte sortu zenean Bermeo-
tik hona etorri ziren egoiliarre-
kin hartu-emona mantendu
dau 25 urteotan. Bera be Ber-
meon bizi den arren, urteotan
ez dau kontakturik galdu eta
bisitan etortzen jake.

■ Jone Guenetxea

EKONOMIA[>]

> DURANGALDEA

Lan eskubideen alde egitera deitu ditu beharginak LABek

‘Gure lanpostuen defentsan, langileok kalera!’ lelopean manifestazinoa deitu dau LAB sindikatuak bihar, Durangoko Udaletxe aurrean 12:00etan

Durangaldeko langileak kale-irtetzerantz deitu ditu LAB sindikatuak, “patronalaren eta administrazioaren jokaerari erantzun bat emon ezik, lanpostuak, lan baldintzak eta bestelako eskubide asko arrisku larrian ikusita”. *Gure lanpostuen defentsan, langileok kalera!* lelopean manifestazinoa deitu dabe, bihar, 12:00etan, Durangoko Udaletxearen aurretik abiatuta.

LABen ustez “arriskularrian” dago Durangaldea: “Eskualde oso industrializatua gara, eta horrek bizi dogun egoerak —enplegu-erregulazino espedienteak, kalera-irteak, enpresen itxierak, langi-

leak euren poltsikoetatik kapitala inbertitzeko eskaerak...— bortitzago sufritzeko arriskua dakar”. Nabarmendu dabe patronala “krisian” egon arren, ez dabilela noraezean: “aurreikusita zeukien eta egoeraz aprobetxatzen dira”.

“Lan zama txikitzean behin-behinekoak geratu ziren lan barik. Orain lan-talde zuzenak dagoz arriskuan, postu horreek murrizteko eta lan zama berreskuratzean behin-behinekoen eta zerbitzu enpresen bitartez aurrera egiteko”, LABen ustez. Langileak “prebrikazino bidean” sartu gura ditueela salatu eta eskubideei uko ez egitera deitu dabe. ■ A.B.

Langileak “prebrikazino bidean” sartu gura ditueela salatu dau LABek

“Patronala krisian egon arren, ez dabil noraezean: aurreikusita zeukien eta aprobetxatzen dabilz”



Azaroan be deitu eban manifestazinoa LABek Durangon, egoera salatzeke.

> DURANGALDEA

Garbitasuneko beharginen eta Udalaren arteko akordioa

Zornotzako Udalagaz adostasuna heldu ondoren, garbitasuneko beharginek joan zen asterako deitutako greba bertan behera iztea erabaki dabe.

Garbitasun zerbitzuko langileek eta Udalak hiru urterako hitzarmena sinatu dabe. 2009ko irailetik aurrera, hilean 111 euro gehiago kobratuko ditue; 2010ean 222 euro eta 2011n 333 euro gehiago hilean. Igoera horreekin, langile bakotzak urtean 5.000 euro gehiago kobratuko ditu. Adostutako diru kopuruari Garbitasuneko Hitzarmenean aurreikusitako igoerak gehitu beharko jakozela be azaldu dabe garbitzaileek.

Garbitasuneko langileek urtean 5.000 euro gehiago kobratuko ditueela azaldu dabe

Balorazino positiboa

Beharginek dinoenez, Udalagaz sinatutako hitzarmenak diskriminazioaren amaiera dakar: “Udaleko eta Aldundiko azpikontratek dagoeneko badaukiezen lan-baldintza duinak lortu doguzela esan gura dau”. Gaineratu dabenez, berdintasun politikak lehenengo “etxean” jarri behar dira martxan. “Zornotzako herritar eta langileak gara. Geuk be familiako ardurak eta hipotekak daukaguz”. Akordio horrekin garbitasuneko beharginen lan-baldintzak duintzeagaz batera, emakume eta langile legez be duindu direla azaldu dabe.

Udalagaz adostutakoagaz emakume eta langile legez duindu direla dinoe

■ kolaborazinoa



Mikel Etxebarria
ELA sindikatua

Krisiaren erantzuleak

Asteburu honetan lagun batek galdetu zidan: “Ez dut ezer ulertzen. Agintariek esan dute 14 urte pasatu ditugula hazkunde ekonomikoan etengabe, eta orain, hilabete gutxi batzuk daramatzagu beherakada dugula, eta zer kristoa montatzen ari den!”. Nire erantzuna ildo honetatik zihoan: hazkundera gutxi batzuentzat izan da eta ez da aberastasunaren banaketarik egin. Enpresariak aurreko krisitik irteterakoan (1993), lanpostu asko bai baina prekariorioak (ebentualak...) bihurtu zituzten, ETTak sortuz, soldata diskriminazioak bultzatuz, eta, noski, etekin asko lortuz, hori bai, beraien poltsikorako.

Administrazioek (hemen Jaurilaritzak eta Diputazioek, batez ere), fiskalitatea etekin gehien dituztenen alde kudeatu dute; hots, diru sarrera gutxiago lortuz aberatsen poltsikoetatik gizarte gehiengoak dituen beharrez gaste publiko bidez bideratzeko.

Bankuek eta Kutxek espekulazioan jolastu dute mundu osoan. Eta asko aberastu dira. Ameriketako Estatu Batuetan sortutako finantza-krisia globalizatu egin da, kapitalak kapital gehiagoren nahiaren dogmari eutsiz, eta, estatuen kontrol ezaz baliatuz, kasinoan jolastu dute ekonomia errealearen babesik eduki gabe. Dena fikzio hutsa izan da; hori bai, fikzio errentagarria gutxi batzuentzat. Eta gaur egun zer? Milaka ebentual kale gorrian, espekulazioaren ondorioz sortutako hipotekak ezin ordaindurik, administrazioak bankuei eta enpresei dirua emanez beraien balantzeak txukuntzeko... Benetan, inork uste al du krisia sortu dutenek errezeta berberekin gaur egungo egoera aldatuko dutela?

Baten batek pentsatu lezake, bankuek, patronalek eta administrazioek sistema usteldu egin dutela. Nire ustez, ez da horrela. Sistema hau berez da ustela. Gaur egungo gizarte ereduak jada ez du balio. Ordua da aldatzeko. Eta hori ez dago eliteen eskuetan. Lortzekotan lortuko da gizarte zibil eta langilegoaren presioaren ondorioz. Ordua da aberastasuna benetan banatzeko.

ZARATE ELEXPE
E R A G I L E A K



Bixente Kapanaga 19, behea
48215 IURRETA (Bizkaia)
Tel.: 946 816 673
Faxa: 946 817 636
construcciones@zarateyexpe.biz

EXCAVACIONES JON

NOTA GUZTIRAKO INDIKATZAK
HONDAKIN BERRIA

Jon Garitagoitia Gallastegui

PAQUETARIO, 1000 + 100000 - 40000 MALLAIA
TEL: 943 17 20 00 - FAX: 943 17 20 00

KULTURA[>]

ANTZERKIA > URTEURRENA



Geroa

Geroa izan zirenak, gaurko antzerkia direnak

Otsailaren 7rako antolatut zuten San Agustin kulturunean urtarri-leko aretoko programazioaren oinarri nagusi izan den Geroa antzerki taldearen omenaldia borobildu duen topaketa. Orain arteko Durangoko antzerki talde profesional bakarra izan dena sortu zela 30 bete direla ohartuta, Geroaren lanetako eszenografia, jantziak, argazkiak, eta abarrak ardatz izan dituen erakusketa izan da ikusgai, eta Geroak taularatu zituen antzezlanak berreskuratu dituzte oholtzan. Iraganen izan zirenaren irudiei begira, argazkian harrapatu genituen zapatuan Geroako kideak.

Otsailaren 15etik aurrera, urtarri-leko hilabete bereziaren ondoren, zelanbaiteko normaltasunera buelta izango du San Agustin kulturuneak. Txikienei zuzenduriko ikuskizun batekin bueltatu ere: Deabru Beltzak taldearen *Nora zoaz txanogorritxu* izango da otsailaren 15ean San Agustin kulturunean. Muntaia dibertigarria, eritmo handikoa, poetikoa eta askea izango da domekan 18:00etatik aurrera otsoaren eta txanogorritxuren barneko munduak ekarriko dituen. Txanogorritxuk ez du ehiztari salbatzailearen beharrik izango, eta otsoa ere ez da ohiko istorioetan bezain basatia izango. ■ I.E.



Kepa Aginako

12 > Disorders talde zaldibartarra

Street punk doinuak lantzen dituen Zaldibarko Disorders taldearen diskoa entzunez, taldekideekin berbetan jardun dugu.



13 > Eduardo Chillidaren lanaz

Bere aitaren, XX. mendeko euskal artista garrantzitsuenetarikoren lanari buruz berbaldia eskainiko du otsailaren 19an Luis Chillidak.

MUSIKA> DISKOA

Punk eta rock doinuen eta txalapartaren abiadura bizian

Disko batean bildutako kantak zuzenean aurkezten dabil **Disorders**



Zuzenekoak emateko aukerak, hainbat izan ditu 2003an taldea sortu zutenetik Zaldibarko Disorders taldeak. Iazko irailean kaleratutako diskoan batutako kantak eskaintzeko oraingoz lotuak dituzten kontzertuak, berriz, martxoaren 7an Igorren eta apirilaren 18an Zumaia txosnetan izango dituzte zaldibartarrek.

Zaldibarko Gaztetxean eta musika lokalean ere aurrez grabatuak zituzten zenbait kanta, baina euren berbetan jaso dugunez, "soinu eskasagaz" egin zuten orduan eta kalitate gehiagoko grabazioa egitea nahi zuten. Iazko udabarrian Musikorta estudioan ekin zioten diskoa grabatzeari.

Diskoa grabatu eta gero ere, herriz herri, gaztetxe eta tabernetan euren diskoak banatzen ibili dira taldekideak eurak, eta Bilboko Street Warriors dendan ere eskuragai ipini dute.

Zortzi abesti biltzen dituen diskoa da sei urte musika egiten jardun duen Disorders taldearen aurkezpen txartela: taldea eratu zutenean sortuak eta disko honetarako moldatuak dira kanta batzuk, eta azkenengo urteetan sortutakoak beste zenbait.

Zortzi abesti biltzen dituen diskoa zuzenean aurkezten dihardu taldeak

Euren kanta propioak sortzeko lan horretan erreferentziatzen The Clash, Ramones, Rancid, Cock Sparrer eta Kortatu lako taldeak izan dituztela diote Disorderseko musikariek; "txikitatik entzun izan ditugun taldeak", orain ere gehien errepikatzen dituztenak.

Hainbeste urtean taldean iraun izanaren oinarria euren artean beti izan duten harreman ona dela aipatu digu Mendi baxujotzaileak. Harreman horrek eta Iñigo, Andoni, Iban, Mendi, Gorrotxa, Tibur eta Maiderrek, taldekide bakoitzak egiten du Disorders.

Txalaparta orijinala

Punk-rock musika dute euren erritmo eta doinuak sortzerakoan oinarri Disorderskoek, baina txalaparta ere baliatzen dute. "Soinu original bat bilatzen genuen txalaparta taldean sartuta, eta txalapartari paregabeak dauzkagu Zaldibarren, gainera", diote.

Diskoan bildutako zortzi abestiak, taldekide batek izandako ideari guztien artean forma emanda sortu dituzte Disorderskoek, eta lagunaren kolaborazioa ere izaten dute maiz. Gaztelaraz, euskaraz zein ingelesez, politikaz eta arduratzen dituzten beste gai batzuei buruz jarduten dute.

GEURE DURANGALDEA

Ostutako umeak Abadiñon



Jose Luis Lizundia Euskaltzaina

Público da, seguru asko, egunkari errepublikazale bakarra eta, agian, horregaitik ardura-tzen da erregimen demokratiko haren kontra arma militarrez altxa eta terrorezkoa ezarri zutenen erahilketa eta ankerkerien barri emoten dabilena. Francoren erregimenaren ankerkeria horreetariko baten albiste emon dau; hots, umeen lapurreta, askok uste izan dabena Argentinan geroago antzeko militar golpista batzuen kontua zela, eta ez hemen jazotakoa.

1994an, gerra amaitu eta bost urtera, 12.042 ume ei zeukazen Estatuak, Errepublikaren aldeko presoek kendutakoak eta errexisaturiko etxe eta ikastetxeetan internatutakoak. Ama asko afusilatutakoak izango ziren, beste batzuk kartzeletatik urten eta gero erbesteratuak. Negargarriena, bizirik urte batzuk igaro ondoren eurak erditutako ume asko sekula ezingo zitueela ikusi, agintari barriak, militar edo falangistak, lapurtuta. Emilia Giron presoaren lekukoa batu dau Vinyes historialariak: "Bataiatzeko eroan eustien, eta ez deustie itzuli". Andra horrek kontatu dau zelan bere preso lagun batzuen erditzeko unean etorri ziren seme-alaba bako bikote faxistak eta umeok eroan.

Seguru asko, Abadiñon, Viguera jeltzaleari erreki-satutako Ibaigoiti jauregian – gaur egun, Zelaieta Hotela – holako ume asko egongo ziren. Gogoratzen naz, gure aititaren aginduz, auzoka txandan, "borondatez", dohai-nik, beraz, esnea behin baino gehiagotan eroan neutse-la neskato-mutikotxo errubako koitadu harei. Ziur, bestalde, planifikazio zital baten ondorioz, ez zela Euskal Herriko umerik egongo Abadiñon, hemengoak Andaluzian eta Asturiaskoak Abadiñon. Ikerketa bat egingo balitz, baliteke ume horretako batzuk gaixoak jota, Abadiñoko Epaitegiko heriotza erreregistroan aurkitzea. Oraindino biziko da Viguerenean lanean ibilitakoren bat, guztiz interesgarria litzakeelarik elkarriketa egitea. Norbaitek baleki, eskertzekoa litzateke aditzera emotea.

Gaztelaraz, euskaraz nahiz ingelesez sortzen dituzte euren kantak

Txalapartari lekua egin zioten taldean, soinu originala bilatuz

Zaldibarko musika mugimen-duaz galdetuta, Quattro Clavos eta Ostias Mil taldeak gogora ekarri dizkigute, eta Zaldibarren jende asko murgildu izan dela musikaren munduan. Oholtzarik ohol-tzarako bidean topatu dituzten Durangaldeko beste musika taldeak ere hartu dituzte gogoan, eta segitzera bultzatu.

No Use For A Name talde amerikarraren Platerueneko kontzertuan izan ziren asteburuan Disordersko zenbait taldekide. Kontzertu horretara bezala, inguruko taldeei babes ematera edo gustuko taldea entzuterako inguruko herrietara zein atzerrira joateko arazorik ez dute izaten. ■ I.E.

PLATERUENA Durangoko Kafe Antzokia

www.plateruena.net

OTSAILAK 14 22:00etan
HERMAN DUNE
NEW CD!!!! NEXT YEAR IN ZION
KONTZERTUA. Sarrera: 15 euro.

OTSAILAK 18 20:00etan
SWORN ENEMY +
FREYA + LION HEARTH + CDC
KONTZERTUA. Sarrera: 18-23 euro.

OTSAILAK 20 22:00etan
KOKEIN +
TUESDAY EVENINGS
KONTZERTUA. Sarrera: 5 euro.

Eguneko menua astelehenetik larunbatera
Landako etorbidea, 4a 48200 Durango Tel.: 946 030 300

NORA ZOAZ TXANOGORRITXO

Deabru Beltzak (Bilbo)

San Agustin KULTUR GUNEa
DURANGOKO UDALA

Otsailak 15
igandea 18:00etan

11-51 501 07 76 Artekale, 14 Durango

HITZ

Liburudenda

ARTEA > ELKARRIZKETA

Zer balorazio egiten duzue Chillida Leku museoak betedituen 9 urteez? Zure aitaren utopia betetzat ematen duzue?

Zalantza barik, egiten dugun balantzea oso positiboa da. Pertsona, aita, joan egin zen, baina bere obra gure artean dugu, eta, gainera, hau bezalako leku batean: berak sortu zuen lekuan. Gaur egun hainbat alorretan lanean dihardugu museoak erreferente izaten jarraitu dezan, hemen eta kanpoan.

Bestelako kultur adierazpi-deen kokaleku ere bilakatuta Chillida Leku. Musikak leku berezia hartu du...

Bai, oso erlazio estua zuen aitak musikarekin. Bere ama operako kantaria izan zen, eta beti erakarri zuen musikak, nahiz eta bera "belarri txarrekoa" zela esaten zuen. Musika eta poesia barik, artea ez litzatekeela existituko esaten zuen aitak.

"Musika eta poesia barik, artea ez litzatekeela existituko esaten zuen aitak"

Eta musika ardatz hartzen duen erakusketa antolatu duzue hilabeteotarako...

Urte hau musikari dedikatzea pentsatu dugu museoan, eta nire anaia Ignacio komisario duen *Chillida. Espacios sonoros* erakusketa izango da abiapuntua. Aitaren ibilbide artistikoaren lehenengo urteen (1951 eta 1964 artekoen) azterketa egiten da bertan: Parisen denboraldi bat egin ondoren, inspirazio bila aberrira bueltatzen denekoa, eta Manuel Illarramendirekin Hernaniko suteagian topo egiten duen garaikoa. Mailuaren soinua, ikatzak kiskaltzerakoan egiten duena, eta hauspoarena, esaterako, musikaren ikuspegi platoniko- pitagorikora gerturatu zuten gure aita. Horregatik daude musikari, soinuari hain lotuta aldi horretako aitarenekin.


"Eskoletako publikoak osatzen du Chillida Lekuko bisitarien %10 edo %15"

Zelako bisitariak jasotzen dituzue Chillida Leku museoan?

Mota askotariko bisitariak izaten ditugu, eta beti presente duguna gazteak erakarriko dituen programak osatzea izaten da. Hezkuntzako gaiez arduratzen den sail bat dugu horretarako, eta eskoletako publiko horrek osatzen du kopuru osoaren %10-15 inguru. Katalanak, euskaldunak, Madrildarrak eta frantsesak dira, hurrenez hurren, Chillida Leku gehien bisitatzen dutenak.

"Pertzepzioa eta experimentazioa lantzea interesatzen zitzaion aitari"

Eduardo Chillida artista ezagunaren lanaren inguruan berbaldia eskainiko du otsailaren 19an Durangoko Museoan Luis Chillida semeak, Artea ezaupide zikloaren baitan.



Aitaren pentsamendua duzuela museoaren jardunaren oinarri diozue. Zein da pentsamendu edo filosofia hori?

Berak museo "bizi" bat nahi zuen, arte disziplina ugariekin harremana izango zuena. Bizia, halako paraje naturalean egonda, aire librean, beti desberdina den leku bat delako; urteko aro bakoitzak, eguzkiak, euriak aldatzen duen espazioa. Ez zuen leku estatiko bat nahi, obrek beste leku batzuetara bidaiatzea baizik, beste erakusketa batzuetara eramatea; horregatik gaudete etengabe aldi baterako erakusketak antolatzen. Une honekin, Alemania eta Valladoliden dago obra. Arte disziplinekiko harremanean, poesia, dantza, musika eta filosofia barne hartzen dituzten programak antolatzen ditugu.

Zer lan filosofia zuen aitak?

Bere lan egiteko moduaz idatzi dira liburuak; liburu asko idatzi daitezke. Baina, batez ere, ezezaguna zuena lantzea zela ideia nagusia esango nuke: uneoro, harritzeko gaitasuna mantentzea. Pertzepzioaren eta experimentazioaren bidea interesatzen zitzaizkion, esperientziarena baino gehiago. Lana orainean egiten zuen, baina hanka bat etorkizunean izanda.

Zure bizitzak aurrera egin ahal ulertu duzu hobeto aitaren lan artistikoa?

Bizitza bat oso luzea da, eta egon dira momentuak –oraindik ere badaude– ulertzea lortzen ez dutunak. Eta aitak esaten zuen moduan, ezaguna dugun horretan ere beti dago zerbait ezezagun zaiguna. Txikia nintzenean bere lana baino ezagunagoa nuen bere pertsona, baina biak lotuta daude eta bata bestera zaramatza; horrela igarotzen da bizitza.

Eta semearen begietara, zelakoa zen Eduardo Chillida?

Zalantza barik, ikaragarri pertsona ona. Bere buruarekin oso zorrotza, eta besteekiko oso tolerantia. Askatasuna asko maite zuen, eta uste zuen norbere askatasunak bestearena soilik zuela muga bezala. Aita perfektua zen; ereduarekin erakusten zigun eta aholkatu egiten gintuen. Zerbait etan hanka sartzen bagenuen, gu geu ohartu arte itxaroten zuen. Isila baino, oso pertsona sakona zela uste dut, eta garrantzizko uste zituen gaietaz egiten zuen berba.

Amak zer harreman izan du aitaren lanarekin?

Funtsezkoa. Beti ulertu eta lagundu dute elkar. Arkitektu-

"Bere buruarekiko oso zorrotza eta besteekiko oso tolerantia zen; askatasuna maite zuen"

rako ikastetak uztea erabaki zutenean lagundu egin zion: bere posibilitateetan sinetsiz lagundu ere. Aitak munduarekin zuen lotura zen, bera mundu oso berezi batean bizi zelako eta amak oinak apur bat lurrari lotuago zituelako. Aitak esaten zuenez, "nitaz hitz egiten dudanean, ni eta Pilitaz ari naiz".

Zure aitak Nestor Basterretxea, Jorge Oteiza eta Gaur taldea osatu zuten beste kideekin izan zuen harremanaz zer oroitzapen duzu?

Ni oso txikia nintzen, eta aipatzen dituzunak geroago ezagutu nituen. Harreman oso estua zuen aitak Rafa Ruiz-Balerdirekin, eta txikia nintzenean aitarekin egoten zela gogoratzen dut. Harkeraman zuen Gaur taldearen batzarren batera. Baina aita ez zen taldean lan egiteko artista, beti izan zuen gustuko bakarrik lan egitea.

Durangon eskainiko duzun hitzaldiaren oinarria esaldi batean azaldu dezakezu?

Limitearekiko ikuspegi filosofikoa izango da hitzaldiaren gakoa: *Ez al da muga espazioaren benetako protagonista, oraina denboraren protagonista den moduan?* da galdera nagusia.

Zelakoa da Chillida Lekuko eguneroko lana?

Oso lan polita eta ardura handikoa da; Batzorde Exekutiboko Gonzalo Calderon, Josemari Mendez Vigo, Mamen Lizariturri eta nire anaia Ignaciorekin konpartitzen dudana. Egunerokoan ez, baina nire ama eta anai-arrebak ere beti daude hor; museoko lan-taldea ahaztu barik. Komunikazio arduradun bezala aurpegiarik ezagunena nirea da, baina hitz egiten dudanean ez nabil nire lanari buruz, baizik nire aitaren eta aipatutako guztien lanaz. ■ I.E.

"Ez zen taldean lan egiteko artista, beti izan zuen gustuko bakarrik lan egitea"

ZINEMA> EMANALDIA

Zinegoak jaialdiko lagin bat Durangon izango da ikusgai

Otsailaren 13an eta 14an izango dira emanaldiak San Agustinen

Urtarrilaren 30etik otsailaren 7a arte izan den Bilboko gay-lesbo-trans nazioarteko zinemaldiaren jaialdiaren 6. edizioan, Zinegoak jaialdian, aurkeztutako filmeetarikozenbait ekarri dituzte otsailaren 13 eta 14an Durangoko San Agustin kulturgunean emateko.

Euskadin zein nazioartean sortutako film laburren bilduma

Bilbon izan den zinema jaialdi horretan aurkeztu da, aurtan, gay tematika duen euskaraz ekoiztutako lehenengo lan luzea, Roberto Caston-ek zuzenduriko *Ander*. Nekazal-gune batean kokaturiko istorioa da, bere homosexualitateaz jabetzen den 40 urteko Ander izeneko gizonaren bizipenena.

2009an seigarrenez izan den Zinegoak lehiaketaren film luzean alorrean epaimahaiak irabazle aukeratu duena, aldiz, Islandian ekoiztutako *The Amazing Truth about Queen Raquela* izan da, Olaf de Fleur Johannessonek zuzendurikoa. Aipatutako bi filmak ez, baina film laburren erakusgarri bat izango da Durangon ikusgai.

Bilboko zinemetan eskaini dituzten ehundik gora film luze eta laburren artekoen lagina da Udaleko Berdintasunerako kontseiluak bideratutako zikloan Durangon ikusgai izango duguna.

Hemen ekoiztitakoak

Otsailaren 13an, 22:00etan, euskal sortzaileek 2008an ekoiztutako bost lan laburren bilduma izango da ikusgai: Yolanda Martinezen *De compras con mi madre*, Asier Irazabalen *La Yesi TV*, Ainara Torresen *Bajo mi mirada*, Frantziaren eta Euskadiren elkarlanetik sortutako Tania Arriagaren *La espinita*, eta Gorka Cornejoren *Yo solo miro*.

Bilbon eskaini dituzten 100 filmeetako hamaika ikusgai

Gaur eta bihar da zita, Durangoko San Agustinen

Nazioartean ekoiztitakoak

Zinegoak zinema jaialdian erakutsitako eta lehiatutako filmen artean 2008an nazioartean sortutako emanaldia izango da otsailaren 14an, 22:00etan hau ere, San Agustin kulturgunean; Susan Justin, Barbara Seiler, Fernando Gamero, Patricia Bateira, Ronny Hirschmann eta Jon Bush zinema-gileek ekoitzi eta Bilboko Zinegoak jaialdian bidalitako filmak.

Kanada, Suitza, Portugal, Espainia, Israel eta Estatu Batuetan pentsatu eta ekoiztutako *Cut*, *Tranzs ins Glück*, *Jodienda Warrick*, *Frequent Traveller*, *Shotgun* eta *Donny & Ginger*; 2007an ekoiztutakoa azken hau. ■ I.E.



ARGAZKIGINTZA> LEHIAKETA

San Blas etako XIII. Argazki Rallya: sariak

San Blas egunean hartutako formatu digitaleko launa argazki aurkeztu dituzte Abadiñoko XIII. lehiaketan parte hartu duten argazkizaleek

Asteon eman dizkiete Abadiñoko Txanporta kultur etxean San Blas eguneko Argazki Rallyko lau sailerako irabazleei zegozkien sariak. Sari banaketan izan dira San Blas eguneko Argazki Rallya antolatzen duen Udaleko ordezkariak eta sariak jasotzera joandako lau argazkilariak.

Txanportan zapatura arte daude ikusgai aurkeztutako lanak

Zehaztutako denboran epaimahaiak emandako gaiak ondoen islatuko zituzten uneak euren kameretan gordetzen jardun zuten otsailaren 3ko eguerdia arte 20 parte-hartzaileek Zelaletan.

Epaimahaiak bost sari banatzea zen aurreikusitakoa; ganaduari egindako argazki onena, postuei egindako hoberena, kaleko giroa ondoen islatzen zuena, gailibrean egindako argazki adierazkorrena eta Abadiñoko argazkilari batek hartutako argazki onena sarituko zituzten.

Antolatzaileek azaldu duteenez baina, kaleko giroaren arloan aurkeztutako irudiek "gutxieneko mailarik ez dutelako izan" banatu barik utzi dute sari hori.

Lehiaketako beste lau sariak jaso dituztenak dira: Aitor Ortiz-ganaduari egindako argazki onenaren saria-, Carlos Mediavilla-erakusmahaiari egindako argazki onenaren saria-, Felix Hierro-gailibrean hartutako argazkiari dagokion saria- eta Koldo Cobos-herriko parte-hartzaile batek egindako argazkirik onena-.

Saria jaso duten argazkiak, parte-hartzaileek San Blas egunean hartu eta lehiaketara aurkeztutako launa argazkirekin batera, otsailaren 14a arte daude Txanporta kultur etxean ikusgai. Aurtengo ediziora arte formatu analogikoari lekua egiten zion lehiaketan lehenengoz digitale-ra mugatu den lehiaketaren uzta ikustekoa baita. ■ I.E.

Sarietako bat ez dute eman, gutxieneko mailarik ez zegoelako

MUSIKA> KONTZERTUA

Xarma eta Zea Mays, Gaztetxearen 10 urteak ospatzeko

Berrizko gaztetxea okupatu zeneko hamarkada ospatzen den eguna gaur den arren-otsailaren 13a- eta asteburu honetan ere bazkari eta bakarrikzeta saioekin jaia izango bada ere, eskumako irudikoak joan zen barikuko kontzertuan hartutako irudia da.

Hiltegixe gaztetxea martxan hasi zela hamarkada ospatzeko, duela aste batzuk abiatu eta oraindik beste egun batzuetan ere luzatuko den programaren barneko kontzertua zen. Otsailaren 6an gaztetxea bete-bete egin zuen kontzertua: taldekideen erdia berriztarak eta beste erdia ondarrutarak dituen Xarma taldea izan zen lehenengoa oholtzara igotzen.

Ondoren, *Morphina* disko berrieneko kantak, bertsiak eta oholtza inguruko beroak sortutako koktela izan zen Zea Maysena.

Bazkaria eta bakarrikzeta aukeran gaurko egitarauan



Ju Kepa Aginako

Ikastolen mugimendua zer den jakin gura dozu?

Doan bialduko deusugu hori azaltzen dauen aldizkaria. Gainera, CD bat be jasoko dozu Ikastolen Elkartek Pirritx eta Porrotx eta Ken7ko Eñaut Elorrietaren laguntzaz egindakoa. Bialdu eskaerak Durangoko Kurutziaga Ikastolara edo Elorrioko Txintxirri Ikastolara. Musutruk da.



Eskariak egiteko modua:

Telefonoz: 94 620 08 22 (Durango)
94 658 22 61 (Elorrio)

Posta elektronikoa erabiliz:
durango@ikastola.net • elorrio@ikastola.net

GEURE EGITEKOAK

- Gure haur eta gazteei heziketa euskalduna eta unibertsala eman nahi diegu.
- Giza baloreetan oinarritutako gaitasunak landuz, geuk ikastoletan sortutako material didaktikoarekin.
- Partaidetza, tolerantzia eta elkartasuna praktikatuz.
- Jalo-berritatik hemezortzi urtera arte, batxilerra eta Lanbide Heziketa barne.
- Ikastolak, Euskal Herriaren etorkizuna ereiten.

“Orain arteko gestinoari jarra emotea izango da nire erronk

Aurretik abiatuta dagoen proiektuak mantentzea eta garatzea izango da Idoia Mendiolagarai Zaldibarko alkate barriaren helburu nagusia. Astebete besterik ez da pasatu Igor Barrenetxea-Arandoren lekukoa hartu ebanetik, eta, oraindino lur hartzen dagoela aitortu arren, badaki zein den bere bidea.



Idoia Mendiolagarai >> Zaldibarko alkatea

“Eskertzekoa da norberarengan pentsatzea; babesa eta laguntza daukadala sentitzen dot”

“Ikusi beharko da krisiagaz zer gertatzen den, ezin dira etxeak eraiki jentea erosteko beldurrez dagoela”

Zaldibarko alkate barria da Idoia Mendiolagarai. Zinegotziaren aulkia itzi eta alkatearen makila hartu dau. Alderdiak eskainitako konfidantza eskertu eban kargua hartu eta segidan; familia eta lagunaren babesa be badauka. Bide barri baten lehenengo egunak diren honetan, bere sentsazio eta erronken barri emon deusku.

Alkate kargua hartu barri dozu. Zelan joan dira lehenengo egun honeek?

Ilusino handiz eta lan egiteko gogoz beterik hartu dot kargua. Ardura galanta da, eta pisua be oso handia. Baina gauzak gogoz eginda, aurrera egingo dogula uste dot; nahiz eta jakin guztia ez dela gura dogun moduan irteten.

Ardura galanta dela dinozu. Zer sentsazio daukazu honeetan egunetan?

Oraindino lur hartzen nagoe-la esan leiteke. Sinestu be ezin dot egin ia; apurka-apurka martxa hartzen nabil, nire lanetan sartzen. Izan be, bada- kit taldeko lana izango dela,

baina sakonean dagoena be ezagutu behar dot. Azken baten, lana da niretzako, oso garrantzitsua den lan bat.

Lan barria da zuretzako. Atzean, zure alderdikide baten lana daukazu. Erreferentzia al da zuretzat Barrenetxea-Arando?

Bai; erreferentzia handia, gainera. Lan asko egin dau. Ez dago modurik Igorrek eta Nereak egindako guztia eskertze; bien artean talde sendoa osatu dabe. Nerea Garitagoitia alkateordeak be lan asko egin dau 24 orduz buru-belarri, agian kanpotik ikusita hainbeste igartzen ez den arren. Itzaleko lana izan da berak egindakoa.

Igor Barrenetxea-Arandok 10 urte emon ditu alkatezan. Positiboki baloratzen dozu, beraz, bere ibilbidea...

Kudeaketa ona egiten jakin dau; herriari etekin ugari atera deusala pentsetan dot. Lan onagaz dihardu, eta aurrerantzean be, zinegotzi lez, ondo ariko da. Nire guraria bere martxa hartzea da; gitxienez, berak hasitakoa amaitzea da nire desioa.

Orain, aurrera begiratzeko ordua da. Zer erronka izango dozu etorkizunera begira?

Oraingoz, egunean eguneko lanera egokitzea da egin behar dugun lehenengo zeregina. Ondoren, erronka nagusia aurretik abiatuta dagoen proiektuak garatzea edo mantentzea izango da; orain arteko gestinoari jarraipena emotea. Bestalde, Euskara arloan indarrak jartzeko asmoa daukat; azken urte bietan be horretan aritu izan nazela esan leiteke. Lehentasuna da niretzako Euskara.

“Barrenetxea-Arando eredu handia da niretzat; 24 orduan aritu da buru-belarri lanean”

“Euskara arloan indarrak jartzeko asmoa daukat; lehentasuna da niretzako”

Kargua hartu zendunean alderdiak zugar jarritako konfidantza eskertu zenduen.

Eskertzekoa da, norberagan pentsatzea halako erabaki bat hartzerako orduan. Babesa eta laguntza daukadala sentitzen dot. Gainera, zure herriko alkate izatea ardura garrantzitsua da. Halan be, ez neuke nik egindako lanaren ordain moduan kontsideratuko.

Hainbat alorretan aritu beharko dozu Udalean. Etxebizitzaren arloan, proiektu batzuk garatu dira Zaldibarren. Zer bide hartuko dozu?

Herrian etxebizitzak eraikitzea beharrezkoa dela argi dago. Asmoa izan arren, egoera ez dago txantxetarako, eta ikusi beharko da krisiagaz zer gertatzen den. Ezin dira etxeak eraiki jentea erosteko beldurrez dagoenean. Etxebizitza tasatuak zozkatu genduzen, eta batzuk atzera bota dira. Bestalde, lokalak erabiltzea onartu dogu, eta neurri ego- kia dela erizten deusat.

Iban Gorriti



aipena ka nagusia”

N-634 errepidea Zaldibar erditik igarotzen da. Trafikoa arazo garrantzitsua da, ezta?
Kamioi eta kotxe piloa pasatzen da bertatik, eta horri konponbideren bat emon behar jakola pentsatzen dot. Bide horretan semaforo bat jarri zen Aranguren auzoko oinezkoei pasabidea egiteko, eta aldea igarri egiten da. Industrialdera sartzeko biribilgu-nea be hortxe dago. Gauza batzuk konpontzen doazela esango neuke.

Eztabaida sortu dauen gaia izan da Agarre eta Arriondo inguruetako industrialdea. Agarre Bizirik plataformakoekzuekin biltzea eskatu eben. Zelan dago kontu hori?
Oraintxe bertan geldirik dago. Nire intentzinoa eurekin batzartzea da; euren eritzia entzutea. Baina lehenengo gure taldekook bildu behar dogu. Ikusiko da zelan doan aurrera.

Zer asmo daukazu gazteriarri begira? Gaztelekua eta Gaztetea be hor dagoz...
Gazteekin lan asko dogu egiteko. Ikuspegi ezberdinak daukaguz, eta horregaitik, lehenengo eta behin entzun egin behar jake; ondoren, ahal den guztia egingo da. Eurak dira herriko etorkizuna, eta politikan inplikatzeko erakutsi behar deutsegu. Gazte moduan daukiezen arazoei aurre egin behar deutsee, beti nagusioi itxaron beharrean. Aurrerantzean,

“Oraintxe bertan geldirik dago gaia, baina nire asmoa Agarre Bizirik plataformakoekin batzea da”

“Gazteak dira herriaren geroa, eta inplikatzeko erakutsi behar deutsegu; lan asko dogu egiteko”

“Nire ustez, oso ona da alderdi denekin daukagun hartu-emon; pena da batzuk kanpoan egotea”

“Nire asmoa ahal dodan guztia emotea da, argi eta garbi daukat zein izan behar den nire papera”

Gaztetxeekin be hartu-emon izan gura neuke; Gaztelekuari jagokonez, euskara indartzeko tresnatzat ez eze, gaztetxoendako bilgune izan daiten be badaukagu. Izan be, 12-16 adin tartekoak gaztee-kiak dira Gaztetxerako.

Zelako egoeran aurkitzen da Gobernu Taldea? Zelako hartu-emon daukazue gainerako taldeekin?
Independienteak, sozialistak eta geu gagoz Gobernu Batzordean, eta nire ustez oso ona da denekin daukagun hartu-emon. Ondo konpontzen gara eta gauzak aurrera ateratzerako orduan ez da arazorik izaten, normalean. Gainera, herriaren onerako bada, merezi dauela uste dot.

Ezker Abertzaleko hautagaiak legez kanpora geratu ziren hauteskundeetan. Badaukazue zelan baiteko hartu-emonik?
Pena da eurak ez egotea. Ez daukagu hartu-emonik euren, oraingoz.

Lanari kитеko sasoian zagoz. Zer eskainiko deutsezu herriari eta herritarrei?
Lanaldi osoz jardungo dot Udaletxean, baina horretaz gainera, badakit alkatearen lana egunean 24 ordukoa izan ohi dela. Nire asmoa herriaren alde ahal dodan guztia emotea da, argi daukat zein den nire papera. Nire familiakoek eta lagunek be badakie zein den nire intentzinoa, eta horregaz kontatzen dabe. Euren laguntasuna daukat, eta ez da gitxi. ■Markel Onaindia



I. Gorriti

“Euskararen ordenantzak garatzea gurako neuke”

Kargua hartu eta berehala, euskara izan eban hizpide Idoia Mendiolarai alkate barriak. Horregaz batera, kultur arloan esfortzu berezia egingo dauela dino; Kultur Etxea sortzea be bere lehentasuna izango ei da.

Euskararen inguruan lanketa berezia egiteko asmoa daukazu. Udaleko hainbat saio gazte-leraz egiten dira. Aldaketa-rik aurreikusten dozu?
Udalbatzarrak eta batzordeak be gazte-leraz izaten dira normalean. Talderen baten euskara ez dakien baten bat dagoenean, horretarako ohitura dago. Gatz ikusten dot egoera aldatzea, baina apurka-apurka zeezer egin leiteke. Inor derrigortu barik, baina ahalegina egin gura dot, behintzat.

Eta zer ideia gehiago dozu buruan?
Euskararen ordenantzak garatzea gurako neuke, adibidez. Orain arteko bideari be eustea gura neuke; ezin doguz ahaztu kale izendegia,

edo Berbalagun proiektua, esate baterako.

Santamañezarreko gaina erosi eban Udalak. Herriko kultura eta nortasuna zaintzeak garrantzia dauka zuretzako?
Santamañezarreko tontorra herrian daukan balio sentimentalagaitik erosi genduen. Gure kultura eta euskara nortasunaren barnean dagoz, eta hori ezin leiteke galtzen itzi. Horrelako gauzak mantendu eta bultzatu egin behar dira, eta bide horretatik dator eremu hori erostea. Euskaragaz batera, kultur arloan be esfortzu berezia egingo dot.

Kultur Etxea sortzeko ideia buel-taka dabil azkenaldian Zaldibarren. Ezker Abertzaleak eta

zuek proposamen ez bardinak luzatu dozuez.
Beti egon da talka hori bi aldeen artean; desadostasun galantak daukaguz. Ezker Abertzaleak hutsik dagoen eraikin zahar batean egitea gura eban, baina hori ezin leiteke ezer egin. Gaur egun eraikin batek behar dituen baldintzak ez ditu betetzen; aldaketa ugari beharko litzakez: igogailuak, horma sendoak... Gure proposamena, oster, ospitale inguruan eraikin barri bat altxatzea da. Hori be nire lehentasunetarikoa izango da datozen urteetan.

“Kultur Etxerako dogun ideia, ospitale inguruan eraikin berri bat altxatzea da”

ERITZIA[>]

Gutunak @

Urteko enpresaria

Urtarrilean erabaki da Elecqui eta Lehoiko Bihotz enpresen behin betiko heriotza. Guretzako enpresok ez dira oso eza-gunak, Trapagaran eta Abanto Durangaldetik urrun gelditzen zaizkigu eguneroko martxan.

19an epaile batek enpresotako langile guztien kaleratzea onartu zuen, 174 lagun berri langabeziara bidean.

Latza izan behar du neguko lanbro eta hotzak langabezi bulegotako errenkadetan zain denarentzat.

Enpresotako jabea (zertarako izenik esan) ezaguna da enpresa eta politika giroan. 2003 urteko enpresari onenaren saria eman zioten Euskadiko Kutxak, Empresa XXIek eta EITBk antolatutako Euskal Enpresaren Gaueko XIII. Edizioan. Joseba Azkarraga ere han izan zen sariak banatzen.

2008ko urtarrilean DENAES fundazioaren izenean Esperanza Aguirrek eman zion Madrilen 'Españoles ejemplares' saria.

Hilaren 13an, artikulua hau kaleratzearekin batera, azken langileak irtengo dira Elecqui eta Lehoiko Bihotzeko tailerretatik, eta euren ateak itxi. Nagusiaren (zertarako izenik esan) etxeko egongelako apalean erakusgai jarraituko dute hortik aurrera ere Espainiar Eredugarriari eta Urteko Enpresariari emandako sariek.

Aitor Sarrionandia (Durango)

Giza Eskubide guztiak, guztiontzat!

Euskal Herrian bizi den giza eskubideen falta guztiok ezagutzen dugu. Ez da gauza berria. Berria ez den moduan giza eskubideen alde daudela dioten horiek giza eskubide jakin bat urratzen denean, urraketa horrek eragin dezakeen mina euren alderdiko interesen alde nola bereganatu eta erabiltzen duten, horretarako euren eta eurek kontrolatzen dituzten medioak erabiliz. Zehazki, PNV eta bere tresna mediatikoa den EITBz ari naiz.

Azken asteetan horren adierazle diren hainbat gertakari izan dira. Batetik, Ignacio Uriaren hilketak. Nahiz eta Azpeitiko Udala gobernatzen zuen EAE-ANVK heriotzak eragin zuen min eta samina azaldu, PNVrentzat nahikoa ez eta zentsura mozio bidez Azpeitiko herritarrek modu demokratikoan aukeratutako udal ordezkariak udalera lapurtu die, Earen kolaborazioarekin.

Baina, PNV giza eskubide guztien alde badago, zergatik ez du indar berberarekin salatzen AHTa dela eta, lurraz zein etxebizitzak lapurtu dizkieten familiek jasaten dituzten eskubide urraketak?

Heriotza batek eragin dezakeen mina izugarria izan liteke; eta era berean, izugarria da AHTak kaltetutako familia askoren sufrimendua ere.

AHTa eraikiko balitz eragingo lituzkeen kalteen jakitun garenok, proiektu honen kalteak ongi ezagutzen ditugu, eta, ongi dakigu Eusko Jaurlaritzak kaltetuen zein eskubide "bete" eta zeintzuk ez dituen betetzen ere.

Bestetik, zer esan "Telebatzoki" eta "Batzokirratiaz". Harri-garria da bat-batean giza eskubideekiko duten interesa. Baina egia baldin bada giza eskubide guztiak guztiontzat defendatzen dituztela, zergatik ez diote bere komunikabideetan AHTak kaltetutako beste sektore batzuei (familia desjabetuei, nekazariari, kaze-

tariei, atxilotuei, jipoituei...) ere informazio zabalkunde berdina eskaintzen?

EITBren programazio arazoa larria dela denok dakigu, informazio jakin bat zabaltzen dute. Guztiok sustengatzen dugun komunikabide honetan, guztiok ez ditugu eskubide berberak; hau ukaezina da EITBrekiko bizi dugun errealitate honetan.

Komunikabideen aroan bizi gara, eta jakina da medioetan agertzen ez dena ez dela jendearengana iristen. Baina horrek ez du esan nahi existitzen ez denik. Eta horrek arduratzen du boterea, AHTaren aurka bagarela eta gizartearen zati handi bat garela. Gero eta gehiago.

Protagonista bakoitzak bere papera du pelikula honetan. PNV-PSOEek protagonista nagusiaren paperean, AHTaren abantailak milagrosoak direla sinestarazi eta inposaketa moztaratu; kolore ezberdinetako poliziak polizia "onaren" paperean AHTaren kontrako gaizkileak jipoitu eta atxilotu; eta, azkenik, komunikabideek, EITB denen buru, batetik AHTari etengabeko bultzada eman eta bestetik AHTaren kontra daudenen ahotsa isilaraztea eta hauek kriminalizatzea.

Ez al zaizue pelikula hau ezagunegia egiten? Lem...

Gorka Erdoiza (Durango)

Klik batean @



Kontuz zuloekin

Zumar kaleko zebra-bide honek zeresan handia ematen du egunero bertatik pasatzen direnen artean. Eurria bada, gorpila zuloan sartzen daben autoek ondoan doazen oinezkoak buztan ditue. "Arazoa kopontzeko, zuloa bete beharrean, errepidea bera konpondu beharko leukie", azaldu deusku gidari batek.

Zure eritzia, gutuna edo fotodenuntzia helarazteko helbideak:
Santa Ana Plaza 6, 48200 Durango - astekaria@anboto.org
Izen-abizenak, telefonoa, helbidea eta NAN zenbakiagaz batera bialdu behar dira.

Alderdi, elkarte edo taldeko eriztiak kide baten izenean sinatuta eta ANBOToren erizpideak jarraituz zuzenduta publikatuko dira.

DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO

kolaborazinoa



Endika Blanco

Demokrisia

Krisiarekin egin dut gaur amets. Gauza abstraktutzat nuena olatu bihurtu eta bere gainetik arnasa hartzeko kemenik barik itotzear nengoela, luxuzko itsasontzi bat gerturatu eta salbu nagoela pentsatu dut. Ostera, lemazainak "olatuari aurre egin" oihukatu, eta zeruertzean ezkutatu da.

Itolarriak eragindako izerdia sikatzen ari naizela sartu da aita etxera, egunkaria eta papertxo batzuk eskuetan dituela. "Zer dakarzu?" galdetu diodanean, "PPri botetan jueteko errolda-txartelak" erantzun dit, hain ezaguna dudana bere ahots ironikoarekin. Hasieran barre egin diodan arren, pentsakor jarri naiz berehala; ametsen, demokrazia olatuaren bits artean ikusi ote dudana pentsatzen, alegia. Ez, ezinezkoa. Euskal Herrian behintzat sekula izan ez dugun zerbaitek ezin baitezake orain krisia pairatu. Egunkaria zabaldu, eta "la democracia es una mera entelequia, un proyecto nunca llevado a cabo y pocas veces emprendido realmente" irakurri dut Carlo Frabetti idazle eta matematikari italiarraren artikuluan; arazo honek gure herriko mugak gainditzen dituen argibide.

Arazoak arazo, olatuak olatu, gure inguruko lemazainek 1975eko azaroaren 20an hasi zuten kanpaina berean dihardute; botere eta diru goseak bultzaturiko ekinaldian, hain zuzen ere.

Martxoaren 1eko hauteskenderetan, sigla politikotatik harago, demokrazia helburu, ziklo berri bat bultzatu eta benetako aldaketa bermatuko dutenen alde egingo dut; ametsen ere, ohol xume batekin, olatuaren gainean zetorren herritar batek salbatu nau-eta.

"Benetako aldaketa bermatuko dutenen alde egingo dut"



anboto
durangaldeko astekaria

Anboto komunikabideak Elkarteak
2009ko otsailaren 13a - 8. urtea - 318 zk.

Laguntzailea:



Eta honako Udal guztiak:

Abadiño	Elorrio	Mallabia
Atxondo	Garai	Mañaria
Berriz	Iurreta	Otxandio
Durango	Izurtza	Zaldibar

Zuzendaria:
Jone Guenetxea.
Erredakzio burua:
Joseba Derteano.
Administrazioa:
Itziar Belar eta Miren Abasolo.
Publizitatea: Itziar Azula, Goretti Alonso eta Amaia Huarte.
Erredakzioa:
Aitziber Basauri, Maria Gonzalez., Itsaso Esteban, Markel Onandia
Testu zuzentzailea: Igor Elortza.
Maketazioa:
Ainhoa Arizmendiarieta.
Argazkilariak: Iban Gorriti, Judit Fernandez eta Kepa Aginako.



Inoiz ikusi gabeko deskontuak

Berriztatu zure sukaldea eta **3 fokoko
indukzio plaka bat** oparituko dizugu



%10eko deskontua • 20 hilabetetan ordainduta

larunbatetan zabalik 10:30etik 13:30era • 20 hilabetetan ordaindu interesik gabe

*Martxoak 31 arte, sukalde osoa erostean



Viedsa cocinas  

FABRIKA - Durango - Elorrio errep. ABADIÑO - 902 12 10 24 - info@viedsa.com www.viedsa.com

AGENDA >

> ANBOTOk agendan ezer iragarri gura badozu, agenda@anboto.org helbidera idatzi edo 94 623 25 23 telefonora deitu egiguzu, eguazten eguerdi aurretik.



Otsailaren 15ean, 18:00etan

NORA ZOAZ TXANOGORRITXO?

Istorio bik, mundu bik eta bidaia bik egiten dabe bat Deabru Beltzek Durangon taularatutako antzezlanean: Otsaok eta Txanogorritxok, bakotxaren munduek, eta ikus-entzunezkoak eta antzerkiak. Txanogorritxok oraingoan ez dauka ehiztari salbatzailearen beharrik, bere kabuz moldatuko da; Otsa bera be ez da dinoen besteko basatia. San Agustinen dogu muntai dibertigarri, erritmiko eta poetiko hau.

ANTZERKIA

DURANGO

» Umeendako antzerkia: 'Nora zoaz Txanogorritxo?' (Deabru Beltzak-Bilbo), otsailaren 15ean, 18:00etan, San Agustín kulturgunean.

ELORRIO

» Umeendako antzerkia: 'Kartoibiraka' (Markeliñe), otsailaren 15ean, 17:00etan, Arriola antzokian.



ERMUA

» Antzerki foruma, otsailaren 15ean, 12:30ean, Lobiano kulturgunean. 8 eta 12 urte bitarteko umeei eta euren gurasoei zuzendutako antzezlanean bullying eta arrazismo gaiak jorratzen dira. **Forum-tailerra** izango da gero.

ZORNOTZA

» 'Putzuak lehortzen' (Agerre Teatro), otsailaren 13an, 21:00etan, Zornotza Aretoan.



BERBALDIA

DURANGO

» 'Ekitaldi fisikoa adin guztietan batez ere pertsona nagusietan', otsailaren 17an, 10:00etan, Landako Elkartegiko hitzaldi aretoan. Bizkaiko Foru Aldundiko Kirol Medikuntza Saileko adituak izango dira hizlariak.

» 'En casa con tu bebé' (Euskadiko Esnearen Liga), otsailaren 16an, 18:00etan, Andragunean (Pinondo Etxean).



BESTEAK

DURANGO

» IV. Aukera Azoka, otsailaren 13tik 15era, Landako Erakustazokan. Durango eta lurretako +Dendak merkatarien elkarteak antolatuta.



» Txiki Parka, Landako erakustazokan. Hainbat jostailuz hornitutako espazio egokitua 3. moduluan, 17:00etatik 20:00etara. Urtarileko, otsaileko eta martxoako asteburuetan Udaleko Kultura Sailak antolatuta.



ELORRIO

» Txitxiburduntzi. Otsailaren 15ean, 10:00etan hasita, herriko enparantzan. Txintxirri ikastolak antolatuta, Leiz-Miotako San Lorentzo baselizara joango dira txitxiburduntzia ospatzeko. Jana eta edaria norberan kontura.

IURRETA

» Dantzaldia. Otsailaren 14an, 18:30ean, Askondon.

» Basokoipetsu. Otsailaren 15ean, 17:00etan, Aita San Migel plazan. Trikitilariak alaituta.

ZALDIBAR

» Txitxiburduntzi. Otsailaren 15ean, 17:00etan hasita, herri-eskolako pilotalekuan. Sua, musika, edaria, ogia eta txorizoa Udalak jarriko ditu, hurreratuko direnek txorizoari eusteko makila eroan beharko dabe.



DANTZA

DURANGO

» Dantza tailerra: 'Dantzaldi ibiltaria' (AIKO taldea). Otsailaren 17an, 19:30ean, Plateruena kafe antzokian.

DEIAK

DURANGO

» Genero biolentziaren kontrako elkarretaratzea. Eguenero, 20:00etan, Andra Mariko elizpean. Bilgune Feministak eta Andereak elkarteak deituta.

» Bost eurogaz saritutako +Dendak elkarteko establezimenduetan banatutako Gabonetako loteriaren 68.258 zenbakiaren 19.600 partizipazioak kobratzeko, Nafarroako Aurrezki Kutxaren sukurtsalean.

ERAKUSKETA

ABADIÑO

» XIII. Argazki Rallyko argazkiak. Otsailaren 14a bitartean, Txanporta kultur etxean.

BERRIZ

» 'Basoak klima aldaketaren aurrean'. Basoko injineru teknikoek elkarteak. Kultur Etxean.

ERMUA

» 'Eskulturak, grabatuak, collageak' (Baroja Collet). Otsailaren 28a arte, Lobiano kulturgunean.

IKASTAROAK

DURANGALDEA

» 'Zure antsietatea kontrolatzen ikasi gura dozu?', emakumeendako antsietatea kontrolatzeko ikastaroa. Otsailean hasita. Astean behin izango diren hiru orduko 15 sesino egingo dira, Durangoko Landako osasun zentroan. Eskolak, astelehen edo eguenetan izango dira, 16:00etatik 19:00etara (94 620 05 20).

DURANGO

» Adinekoendako ikastaroak: 'Argazkigintza digitala', 'Osasun naturalaren tailerra: landare osasungarriak eta prestakinak', 'Landare eta baratzeak ekologiko-ki hazteko', 'Aretoko dantzak', 'Lurrinterapia' eta 'Internet'. Izena emoteko, Adinekoen Udak Egoitza. (94 620 03 21 / 94 603 00 00 Luz. 1710).

IURRETA

» Ikima tailerrak: komiki tailerra.



Otsailaren 13an, 17:30ean, Udak Liburutegian.

MAÑARIA

» Informatika ikastaroa 3.adinekoei zuzenduta. Otsailaren 17an, 11:00etatik 13:00etara, Udak Liburutegian.

INAUTERIAK

IURRETA

» Eguen Zuri, otsailaren 19an, Mikel Deuna kultur elkarteak antolatuta. Tostaden banaketa, 19:00etan, Ibarretxe kultur etxean.

ERMUA

» Oilarraren proba, otsailaren 19an, 15:00etan. Haurrentzako diskoteka, 17:00etan. Orbe Kardinalaren plazan.

IPUINAK

IURRETA

» Haurrendako ipuin-kontalaria: Ines Bengoa, otsailaren 13an, Udak Liburutegian: 3-4 urte bitartekoendako saioa, 17:30ean. Bost urtetik gorako neskato-mutikoendako saioa, 18:00etan.

JAIAK

ABADIÑO

San Blas

» XXI. Burduntziko Bildots Txapelketa.

Otsailaren 14an, 10:00etan, Probalekuan. Txakolin erakusketa be izango da. Parte hartzeko prezioa: 10 euro. Udak bildotsa eta ikatza ipiniko ditu, erretzeko trepentxu eta erremintak norberak eroango ditu. Sariak: 1.a 60 euro, 2.a 50 eta 3.a 40, 4.a 30 eta 5.a 20. Lehenengo 18ek jasoko dabe garaikurra. Egunean bertan Probalekuan izango den bazkari-rako txartelak 15 euroan dagoz Errota eta Txanporta kultur etxeetan salgai. Denera, 250 txartel jarriko ditue salgai.



» Euskadiko Kluben Arteko Pilota Txapelketa: Atxarte (Abadiño) eta Txukun-Lakua (Gasteiz, otsailaren

14an, 17:00etan, Zelaietako frontoian.

DURANGO

Sapuetxek 10 urte

» Autogestino eguna: txokolatea, 21:00etan, eta, 22:00etan, kontu kontalaria: Beatriz Egizabal



(Kontukantoi taldea), otsailaren 13an, Sapuetxe gaztetzean.

» 10. urteurren jaia, otsailaren 14an. Txupinazoa, 11:00etan, eta, 12:00etan, triki-poteoa, Sapuetxe gaztetzetik urtenda. Argazki herrikoia, 14:00etan, eta, 14:30ean, bazkaria, gaztetzean bertan. Ondoren, Agapimonologos.

» 10. urteurren jaia, otsailaren 14an. Preso eta iheslarien omenezko olinpiadak, 17:30ean, eta, 19:30ean, kalejira, Sapuetxe gaztetzetik urtenda. Kontzertuak: Little John and... + The Sastres + Desperdizio eta gehiago + Dj Jean Pierre, 22:00etan, gaztetzean.

IURRETA

Santa Apolonia

» Meza, otsailaren 15ean, 12:00etan, Santa Apolonian. Jarraian, Mikel Deuna dantza taldekoen saioa, txapliguak eta luntxa.

LEHIAKETAK

ABADIÑO

» Emakumeen Nazinoarteko Egunerako kartel iragarlea aukeratzeko lehiaketa. Lanak aurkezteko azken eguna otsailaren 16a: Errota kultur etxean edo Udaleko Berdintasun Zerbitzuan. Saria: 600 euro. Herriko onenarentzat, barriz, 150 euro izango dira.

BERRIZ

» Emakumeen nazinoarteko egunerako kartel iragarlea aukeratzeko lehiaketa. Lanak aurkezteko azken eguna otsailaren 16a: Udaleko erregistroan edo Udak Liburutegian. Saria: 300 euro. DBHko ikasleen artean irabazleak argazki kamara digitala lortuko dau (94 682 40 36-(6) / berdintasuna@berriz.org).

ERMUA

» II. Piropo Lehiaketa. Maila bi izango dira: 14-17 urte bitartekoak

eta 18 urtetik gorakoak. Oinarriak eta piropoak herriko euskaltegietan, ikastetxeetan, Liburutegian eta Udaleko Euskara Sailean. (euskara@udalermua.net). Lanak aurkezteko azken eguna otsailaren 16a da.

LITERATURA

IURRETA

» **Munduko emakumeen literatur tailerra**, maiatzaren 25a bitartean, astelehenetan, 18:30etik 20:30era, Udal Liburutegian. Aurretik halan eskatuz gero haurtzaindegi zerbitzua be eskainiko da (94 681 27 26 / biblioteka@iurreta.net).

» **Helduendako irakurketa kluba**, otsailaren 17an, Udal Liburutegian: *En un lugar del Atlántico* (Fatim Tiome). Hilaren 18an, *Pasio hutsa-lekua* (Jon Alonso).

MUSIKA

BERRIZ

» **Modesto Aranari omenaldia: Euskeria abesbatza (Bilboko Abesbatza Elkarte)**, otsailaren 13an, 20:30ean, San Juan Ebanjelaria elizan.

DURANGO

» **Gau elektroniko: Iker Undersound (Berriz) + Ruben Kostas (Durango)**, otsailaren 13an, 23:00etan, Plateruenean.

» **Herman Dune**, otsailaren 14an, 22:00etan, Plateruenean.

» **Sworn Enemy+ Freya+ Lionhearth+ CDC**,



otsailaren 18an, 20:00etan, Plateruenean.

» **Eguen Zuri kontzertua**, otsailaren 19an, 18:00etan, Bartolome Ertzilla musika eskolako ekitaldi aretoan. Sarrera doan izango da.

ELORRIO

» **Tayuta (Japon) + Trainsalpine**



Boys (Donostia), otsailaren 13an, 22:30ean, Arriola Antzokian.

ERMUA

» **Jazz kontzertua: Serrano & Colina project.**

Otsailaren 14an, 20:00etan, Lobiano kulturgunean.



ZINE-KLUBA

BERRIZ

» **Zine emonaldia**. Otsailaren 15ean 19:00etan, Kultur Etxean.

DURANGO

» **Zinegoak09 egitarauaren baitan euskal autoreen honako pelikulak emongo ditue: 'De compras con mi madre', 'La Yesi', 'Bajo mi mirada', 'La espinita' eta 'Yo solo miro' pelikulak**, otsailaren 13an, 22:00etan, San Agustin kulturgunean.

» **Zinegoak09 egitarauaren baitan**

nazinoarteko autoreen honako pelikulak emongo ditue: 'Cut', 'Tanzs ins Glück', 'Jodienda Warrick', 'Frequent Traveller', 'Shot Gun' eta 'Donny & Ginger', otsailaren 14an, 20:00etan, San Agustin kulturgunean.

ERMUA

» **Umeendako zinea: 'La momia 3: la tumba del emperador Dragón'**. Otsailaren 15ean, 17:00etan, Lobiano kulturgunean.

» **Zine erotikoreen zikloa: 'Swimming pool'**, otsailaren 19an, 21:30ean, Lobiano kulturgunean

ZORNOTZA

» **'De la escena y de la música al cine' zikloa: 'Hermanos Oligor' pelikula**, otsailaren 17an, 20:15ean, Zornotza Aretoan.



Otsailaren 14an, 22:00etan

HERMAN DUNE,
PLATERUENEAN

Ez dau ezezaguna Plateruena kafe antzokiko oholza Parisko Herman Dune taldeak. Oraingoan, gainera, lana kaleratu barri jatorkuz David-Ivar Herman eta Neman Herman anaiak: 'Next Year in Zion' diskoan batutako abestiak eskainiko deusez bertaratu diren jarraitzaileei. Oraisu Madrilén, Murtzian eta Zaragozan eskaini ditue kontzertuak. Zapatuan, barriz, Plateruenean daukie hitzordua jarrita.

ZINEMA

DURANGO

Zugaza

El curioso caso de Benjamin Button

Zuzendaria: David Fincher
barikua 13:
18:30 /22:00

zapatua 14: 19:00 / 22:30

domeka 15: 19:00 / 22:30

astelehena 16: 18:30 /

22:00

martitzena 17: 20:00



Umeendako zinema

Di que si

zapatua 14: 17:00

domeka 15: 17:00

ELORRIO

Arriola antzokia

My Blueberry Nights

Zuzendaria: Wong Kar-Wai
zapatua 14:
22:30

domeka 15: 20:00

astelehena 16: 20:00



ZORNOTZA

Zornotza Aretoa

El intercambio

Zuzendaria: Clint Eastwood

zapatua 14:
22:00

domeka 15:
20:00

astelehena 16:
20:00



Umeendako zinema

El reino de los chiflados

domeka 15: 17:30

BOTIKAK

Barikua, 13

09:00-09:00

• SanRoma (Uribarri 5 - Durango)

Zapatua, 14

09:00-09:00

• De Diego (Intxaurren 22 - Durango)

09:00-13:30 (*14:00)

• San Roma / Unamunzaga / Sagastizabal

/ Campillo / Balenziaga (Durango)

• Bartolome (Gabiola 2 - Berriz)

• Irigoien (Bixente Kapanaga 3 -

Iurreta)*

• Balenciaga (Berrio Otxoa 12 -

Elorrio)*

09:00-22:00

• Egaña (Bekoetxe 4 - Zaldibar)

Domeka, 15

09:00-09:00

• Unamunzaga (Murua Torre 2C -

Durango)

Astelehena, 16

09:00-09:00

• Mugica (Andra Mari 9 - Durango)

Martitzena, 17

09:00-09:00

• Irigoien (Bixente Kapanaga 3 -

Iurreta)

09:00-22:00

• Bengoa (Jose Antonio Agirre 1 -

Atxondo)

Eguaztena, 18

09:00-09:00

• Gaztelumendi (F.J. Abasolo 2 -

Durango)

Eguena, 19

09:00-09:00

• Balenciaga (Ezkurdi 8 - Durango)

09:00-22:00

• Deleuze Jiménez (Erreka 6 - Elorrio)

TELEFONO INTERESGARRIAK

SOS Deiak.....112

DYA94 620 28 00

Gurutze Gorria94 681 09 49

Osakidetza94 600 72 00

Ertzaintza94 466 93 00

Suhiltzaileak112

GARRAIOAK

Euskotren.....902 54 32 10

Durango94 681 02 32

Bizkaibus94 448 40 80

Pesa902 10 12 10

Continental Auto945 286 466

TAXIAK

Abadiño946 814 470

Matiena606 459 988

Durango Geltokia.....946 811 001

Goco Tour946 202 860

Tele Taxi944 102 121

Radio Taxi Bizkaia ..944 269 026

Elorrio Geltokia946 820 040

J.L. Uriarte ..670 402 002

I. Estebez670 678 273

M Galeano.....946 582 854

Iurreta946 201 565

UDALAK

Abadiño94 621 55 30

Atxondo94 682 10 09

Berriz94 682 45 84

Durango94 603 00 00

Elorrio94 658 27 12

Garai94 681 63 93

Iurreta94 620 12 00

Izurtza94 681 35 48

Mallabia943 17 14 61

Mañaria94 681 89 98

Otxandio945 45 00 20

Zaldibar94 682 70 16

UDALTZAINGOAK

Abadiño94 621 55 33

Berriz94 682 40 36

Durango94 603 00 10

Elorrio94 682 02 18

Iurreta94 620 08 88

BESTELAKOAK

Arriola94 658 31 92

San Agustin94 603 00 21

Zornotza Aretoa94 630 01 68

Gazte informazioa 94 603 00 30

Txanporta KE94 620 36 47

Errota KE94 466 94 16

Gorabide94 681 24 35

Alkoholiko Anonim. 94 415 07 51

Nekazal bulegoa94 681 15 20

Uren Partzuergoa ..94 681 74 86

Butanoa (UME).....94 681 08 77

Araztegia94 620 28 00

Foru Ogasuna.....94 681 07 42

INEM Durango94 681 12 96

Gizarte Segurantz 94 681 49 58

Epaitegiak.....94 603 00 51

KIROLDEGIAK

Igerilekua

Astola94 620 29 29

Igerilekua

Atxondo94 623 14 38

Berriz94 682 43 74

Durango

(Landako).....94 621 51 30

Durango

(Tabira)94 621 51 50

Elorrio94 682 10 27

Zaldibar94 682 73 74

EGURALDIA

9° BARIKUA



Asteburua giro egonkorragaz hasiko dogu, baina fresko. Euria guztiz baztertu eta zeruan hodei gitxi egongo da egun osoan. Haizeak ekialdetik joko dau, ondorioz, tenperaturak ez dira asko igoko.

12° ZAPATUA



Giro eguzkitsua izango dogu, baina hotz egingo dau; izotza botako dau. Ekialdeko haize ahula ibiliko da. Temperatura baxuenak jaitsi egingo dira; altuena, barriz, gradu pare bat igoko dira.

14° DOMEKA



11° ASTELEHENA



13° MARTITZENA



ouskaraz bizi
nahi dugunon
herrira

**ongi
etorri**

16. korrika aek
Tutua-Gentxa 04
Otsailaren 20/26a 10:00-14:00

aek

izan zaitez **KORRIKA** laguntzailea

12 euroren truke,
garrantzitsuenak lortu duzu:

**KORRIKA
LAGUNTZAILEA** izatea.

Honez gain pina eskuratuko duzu eta,
eskaintza orria betez gero, txartelak
ematen dizkizun abantailak ere bai.

www.korrika.org

**korrika
laguntzailea**

**ongi
etorri**

**ongi
etorri**

anboto 
komunikabideak

KIROLAK >



Judoa dibertsio moduan

Durangoko Judo Kluba kementaren, fedearen eta lan gogorraren adibide dugu. Orain bost urte, Iñaki Salas klubaren kargu egin zenean, hiltorian zegoen; orain, 4 eta 13 urte arteko 70 gaztetxo inguru ditu. Judoa heziketarako tresna legez darabilte, eta klaseak modu ludikoan ematen saiatzen dira, jolasen bidez. Gazteak gustura dabilta, presiorik gabe eta lagunartean, eta horixe dago klubaren sekretua.

Adin tarte horretan konpetizioa bigarren mailan geratzen den arren, Durangoko klubekoek badute ezpala. Gaur hamabost, taldekako Bizkaiko ranking txapelketa –11 urtez azpikoa– jokatu zen Bilboko Deportivon, eta Durangoko Judo Klubak irabazi zuen. Salasek 12 judoka eraman zituen Bilbora. Bi taldetan bana-

tuta, liga batean baino gehiagotan parte hartu zuten.

Finalera iritsi zen taldea hiru neskak eta mutiko batek osatu zuten: Maria Bazan, Eider Vivanco, Amaia Baños eta Eneko Diezek. Taldeak bostekoa behar zuen, eta, beraz, desabantailan zeuden. Hala ere, maila bikaina erakutsi zuten, eta ez zen izan Bizkaiko Txapelketa kenduko zienik. Bigarren taldean Maider Cerralbo, Eneko Carballo, Daniel Grigore eta Markel Zugazartaza aritu ziren.

Oinarri pedagogikoa

Gaztetxoaren artean badago datu aipagarri bat; ikasleetatik %40 neskatoak dira. Ia mutikoak adina, beraz. Guztiek ere ondo pasatzea dute helburu, baina bada lehiatzeko grina izaten due-

nik ere: "Kirol indibidualak arrisurtsuak dira; txapelketa batean emaitza txarra lortzen badute, gaztetxoek adorea galdu dezakete. Horregatik, heziketa dugu oinarri, ez lehia".

Iaz arte Iñaki Salas zen klubeko arduradun bakarra. Aurten beste monitore bat gehitu zaio –Txema Carreto–, eta aukerak zabaldu egin zaizkie. Era berean, Salasek esker bereziak ematen dizkio Maristak ikastetxeari, "gure alde asko egin duelako". ■ J.D.

**Bizkaiko 11 urtera
arteko txapelketa
irabazi zuten
Bilboko Deportivon**

24 Julza-Zaldia indartsuenen artean

Saskibaloian eta Bigarren Erregionalean, igoera faserako hautagaien artean dago Zaldibarko taldea. Liga luzea geratzen da, baina bide onetik doaz "Txiki"-ren neskak.

25 Elorrio eta DRTk ohorea jokoan

Postuak definitzeko ligaxketan daude. Bigarren itzulari ekingo diote bihar. DRTk Arrasateren aurka jokatu du etxean; Elorriok Gernika bisitatuko du.

Mailaz igotzeko hautagai sendoa da Julza-Zaldua

Oraindik bide luzea dute aurretik, baina martxa onean ari dira; Lehen postua partekatzen dute beste hiru talde indartsurekin



Zalduak 68-36 irabazi zion New Team-i; hurrengo lehia karnabal asteburuan dute. Kepa Aginako

Liga hasi aurretik, Bigarren Erregionalean multzokide nortzuk izango zituen jakitean, Jose Martin Garitaonandia "Txiki"-k eskuak burura bota zituen: Ibaizabal, Txurdinaga, Salesianos... Denak Lehen Erregionaletik jaitsiak, denak indartsuak eta denak igotzeko faboritoak. "Justu aurtan suertatu behar", pentsatuko zuen; Zalduak aspaldiko talderik indartsuena zuenean, zer eta izarren itzalean ibili behar.

Baina ez zegoen etsitzeko prest. Kantxan balioztatu beharko zuten euren faborito zigilua. Kan-

txak bakoitza merezi duen tokian uzten baitu; eta Zalduaren tokia goiko puntan dago, onenen artean, faboritoen ondoan.

Lau talde bi posturako

Igoera fasean sartuko diren bi postuetarako nortzuk borrokatuko duten argi dago: lehenengo laurek. Horien eta gainerakoen artean alde handia dago. Lauretan zeintzuk sailkatuko diren, ordea, ezin daiteke aurreikusi. Ibaizabal liderrak, Zalduak -bigarren-, Txurdinagak eta Begoñaz-pik hamaikana garaipen dituzte.

Anbotopeko ohi duen goiko postuetatik urrun dago aurtan.

Zalduak eman duen salto kualitatiboa azaltzeko hainbat faktore daude. Batetik, taldea Ana Uriarte eta Leire Morenorenkin -biak Tabirakotik etorriak- indartu dute. Bestetik, ia hilda zegoen harrobia berpiztu egin da, eta Zalduak hiru talde ditu gazte-txoetan eta nesketan: mini-basketa, haurrak eta kadeteak. Azkenik, Garitaonandiak 27 urte daramatza Zaldua klubean -hiru nesken taldearekin-, eta ondo daki non dagoen. ■ J.D.

Pausuz pausu, Sasikoa ondo

Sasikoa bide zuzenetik dago. Apurka-apurka, pausuz pausu, nahiz eta gehitxo sufrituta askotan, partidua aurrera ateratzen dabil- eta badira jardunaldi batzuk lidertzan daudela.

Goierrri ahulari 7-0 irabazita eta lizepoten estropezua aprobe-txatuta, orain, lau puntuko alde dute audioarreikiko. Hirugarren Kenci dago -lizepoten etxean irabazi zuen taldea-, hau ere lau puntura. Hain zuzen ere, asteburuan Kenciren zelaian jokatu dute durangarrek. Elorriok, berriz, lizepot jasoko du.

Abadiñok jaitziera postuan darrai xakean

Nahi eta ezinean dabil Abadiño Xake Taldea. Ligako lehen bi partidua galdu ondoren, Grosen kontrako garaipena bolada hobe baten abiapuntu izango zela uste zuena oker zebilen. Sestaoren kontra 2,5-1,5 galdu zuten.

Egia da Sestao laugarren dagoela eta ez zela irteerarik erosoena, baina helburutzat igotzea duen taldeak arerio zailen kontra ere puntuak batu behar ditu. Yeray Galtzagorri bere partida irabazi zuen, eta Martin Etxeandiak berdindu; hortxe

abadiñarren uztia. Alain Prietok eta Iker Garitaonandiak ezin izan zuten punturik batu.

Euskadiko Lehen Mailan Abadiño zortzigarren dago; azken-hirugarren, jaitziera postuan, lau jaisten baitira. Igo ere beste hainbeste igotzen dira, eta horrek itxaropenerako tartean uzten ditu. Laugarren sailkatua -Sestao- puntu eta erdira dute. Bihar, 16:00etan, Matienan jokatu dute Egidazuren aurka. Gasteiztarrek azkenengo daude, 2,5 puntu bakarrik dituztela.

UnaiZamalloa
•Saskibaloia entrenatzailea



Gure estiloa

Askotan entzuten dogu taldeek jokatzeko era edo estilo desbardinak ditueela. Harrobiko klubetan estilo hori emoten daben identitate seinale edo balore horreetan hezitzen dira jokalariek, bai tekniko-taktiko aldetik bai pertsonaren garapenean be.

Bizkaian badira erreferente asko -orain gitxiago, baina badira-, eta bat gure eskualdean aurkitzen da: Tabirako.

Jakina da 50 urte beteko dituen klub honek bere bizitzan landu dauen filosofiak dakarren jokatzeko estiloa. Normalean fisiko handiagoa eta hobe daukien taldeen aurrean, taldea maiuskulaz, eraso azkarrak ekarriko dituen defentsa gogorra pista osoan, elkarkidetzat eta lanerako grina, tekniko-taktikoki ondo landutako jokalariek dituzte Tabirakok.

Hau da gure estiloa.

Nahiz eta 50 urtetako filosofia eta estiloa izan, ez dago zaharkituta. Baina askotan konpetizinoak eta irabazteko hartzen doguzen bidezidorrek gure estilotik kanporatzen gaitue, eta hor dator kataklismoa. Adin txikietan hezitzen eta entrenamenduetan lantzen denak emaitza onak emoten dituenen, zer dela-eta desagertzen da gero bat-batean, gazte eta kadete mailetan? Emaitzak eta talde nagusietara heltzen diren jokalariek kopurua begiratzea baino ez daukagu.

Erantzunak, beharbada, datozen 50 urteei hobeto aurre egiteko aukera emon leike.

Adituarentxokoa

Herbehereetako abentura: trofeo bi eta susto itzela

Joan zen asteburua benetan zirraragarria izan zen Abadiño Sokatira Taldearentzat. Herbehereetako Openean parte hartu eta hiru pisutatik bitan irabazi zuten: 600 eta 640 kilora artekoetan. 680ra artekoan, Abadiño eta Herbehereetako launa tiralarik talde mistoa osatu

eta bigarren amaitu zuten. Baina asteburuko abentura ez zen hor amaitu.

Loiun pilotua bitan saiatu zen hegazkina lurreratzen, baina haize zakarrak ez zion utzi. Beraz, Bartzelonaraino joan, han lurreratu eta autobusez bueltatu behar izan zuten.



Hainbat tiraldi aldi berean egin zituzten. J.L. Gallastegi

AZKARGI
GARBIKETAK
Bulego eta Industri mantenimendua
Obra osteko garbiketa
Kristalizatuak eta abar
Goietia, 10 - 2.Esk. - ELORRIO
Tfn.: 682 09 91

"BODEGUILLA"

TRAÑA-MATIENA
Tfnoa. 681 43 85

GAER DESINFEKZIOAK
Mota guztietako intsektuak eta arratoiak hiltzen ditugu:
LABEZOMORROAK, INURRIAK, JANTZISITZAK, ARRATOIAK, ARKAKUSOAK, ERLEAK...
Iturriza, 42 - 2. ezk. - Tf./Faxa: 94 622 57 74 - 48240 BERRIZ Mug: 658 75 72 79

Bigarren faseko azken txanpan dira Elorrio eta Durango Ilarduya

Elorriok azken sailkatua bisitatuko du; Durangoko taldeak Arrasate jasoko du etxean

Elorrio Rugby Taldea eta Durango Ilarduya B Euskal Ligako bigarren fasea jokatzeko ari dira. Multzo banatan daude; Elorrio ligako 9.etik 12.erako postuak zehaztuko diren multzoan dago, eta DRT, berriz, 5.etik 8.erakoan. Ez dute ezer jokoan, baina gaitzea ez da inoren gustuko. Asteburuan bigarren itzuliari ekingo diote. Elorriok Gernika azken sailkatuaren zelaian jokatuko du; Durango Ilarduyak Arrasate multzoko liderra jasoko du Arripausuetan.

Elorriok irabazteko partidua du bihar, Gernika azken sailkatuaren aurka

Elorriok hiru partidu jokatu ditu bigarren fasean eta horietatik bi irabazi ditu (Gernika eta Kantabriako Unibertsitatea taldeen kontra); Mungiaren kontrako hirugarrena atzeratu egin zuten, mungiarrek jokalariz justu zebiltzalako; hilaren 21ean jokatuko dute neurketa hori. Baina badute aurreko lanik; gaur bertan, Gernikaren zelaia bisitatuko dute. Gernikarrek azkenengo daude sailkapenean eta Elorrio faborito da. Aurreikuspenak apurto ditzakeen

faktore bakarra zelaia egoera da, lokaztuta eta egoera txarrean baitago. Elorrioko taldea gero eta hobeto jokatzeko ari da liga aurrera doan heinean: "Sasoi batean taldea guztiz deszentratuta zebilen, eta partidu oso txarrak jokatu genituen. Azken aldian hobeto ari gara, zentratuago, eta jokoak hobera egin du", dio Dani Palacios entrenatzaileak.

Arrasate Durangon
Durango Ilarduya hirugarren postuan dago –lau taldeko multzotik– baina exigentzia maila Elorrio dagoen multzokoa baino handiagoa da. Joan zen asteburuan garaipen inportantea lortu zuten Arratiko Zekorrek-en kontra (19-0). Durangarrak argi ibili ziren erasoan eta sendo atzean. Bihar Arrasate dator Durangora. Hirutik bi irabazita, lehengo tokian daude. Hala ere, Durangoko taldeak baditu irabazteko aukerak. Izan ere, Arrasatek bigarren fasean etxetik kanpora jokatu duen partidu bakarra galdu egin du: Arratiko Zekorren kontra (17-12). ■ J.D.

Durangarrek faseko bigarren garaipena lortu nahi dute etxean



Kantabriari erraz irabazi zion Elorriok (52-7). Kepa Aginako

Gehien behar zuenean irabazi du Kulturalak



Kulturalak launa partidu irabazi ditu etxean eta kanpoan. J.F.

Joan zen asteburuan azpimarratzeko moduko garaipena lortu zuen Kulturalak, play offerako borrokan dabilen Zamudioaren kontra (0-2). Zallok sartu zuen lehen gola, eta Goiok -bere atean- bigarrena. Zamudio irailetik etxean galdu gabe zegoen.

Bihar igoera postuan dagoen Lagun Onak dator Durangora

Hiru puntu horiekin Txintxurretaren taldeak beheko postuetako mamua uxatu du. Orain hamaikagarren daude, jaitsiera postuetik zazpi puntura. Bihar Lagun Onak jasoko dute Tabiran. Azpeitiarrak igoera postuetan daude. Ez da talde golegilea –10.ak dira horretan–, baina sistema defentsiboa oso landuta dute, eta golik gutxien hartu duten bigarren taldea dira, Amurrio liderraren atzetik. Beraz, dituen aukera apurretan zehatz ibili beharko du Kulturalak.

Gonzalez eta Etxebarria txapeldun Sanblasetan

San Blaseta XXV. Pilota Txapelketako garaikurrek badituzte euren jabeak. Gomazko Paletan, Praderak eta Ibarrak ezin izan zuten Etxarri eta Okarizen segurtasunarekin (18-30). Eskuz binaka eta promesen mailan, Azkarra eta Garitagoitiak 30-28 irabazi zieten Garaizabal eta Ziarrustari, jokoa baino emozio handiagoa izan zuen finalean. Tornosolo trinketera batutako zaleen pilota gosea benetan

asetu zuena eskuz binakako nagusien mailako finala izan zen. Mikel Gonzalezek eta Iker Etxebarriak osatutako bikoteak 40-26 irabazi zion Martin I.a eta Larrazabalek osatutakoari. Tanto polit asko jokatu zituzten, eta kalitateko partidua jokatu zuten. Mikel Gonzalez berriztarrak ederto jokatu arren, Etxebarria arratiarra izan zen protagonista nagusia. Gazte mailako pilotariak nagusien pare jokatu zuen.

Agenda

FUTBOLA
HIRUGARREN MAILA
Kulturala - Lagun Onak
Zapatuan, 17:00etan, Tabiran
OHOREZKO MAILA
Berriz - Sondika
Domekan, 11:30ean, Berrizburun
BIGARREN ERREGIONALA (gizonak)
Extremeko - Lekoiti
Domekan, 17:30ean, Tabiran
Ezkurdi - Zorrontzako
Zapatuan, 17:30ean, Arripausuetan

SASKIBALOIA
LEHEN ERREGIONALA (gizonak)
Anbotopeko - Txiki Askartza
Zapatuan, 18:00etan, Tabiran


ERRUGBIA
OHOREZKO B MAILA
Durango Ilarduya - Universidad de Vigo
Domekan, 12:00etan, Arripausuetan
EUSKAL LIGA
Durango Ilarduya - Arrasate
Zapatuan, 16:00etan, Arripausuetan

ARETO-FUTBOLA
EUSKAL LIGA
Sasikoa - Euskal Sofa
Zapatuan, 19:00etan, Landako kiroldegian
PREFERENTE MAILA
Elorrioko Buskantza - Ibaizabal
Zapatuan, 18:00etan, Elorrioko kiroldegian
LEHEN ERREGIONALA
Abadiño - Gaztetxe - Abadiño
Zapatuan, 15:10ean, Elorrioko kiroldegian
Preslon Break - Bikaina
Barikuan, 20:00etan, Berrizko kiroldegian
BIGARREN ERREGIONALA
Hasi Durango - Lagun Onak B
Zapatuan, 17:30ean, Landako kiroldegian
Kurutzlaga B - Dantxari
Zapatuan, 16:00etan, Landako kiroldegian

XAKEA
EUSKADIKO LEHEN MAILA
Abadiño - Egidazu
Zapatuan, 16:00etan, Matienako lokaletan
BIZKAIKO GORENGO MAILA
Zaldi Baltza - Santurtzi
Zapatuan, 16:00etan, Elorrioko kirol etxean

SAILKAPENAK >

Futbola / 3. maila / 4. taldea / gizonak		Saskibaloia / 1. maila / Euskadi / gizonak		Saskibaloia / 1. maila / Euskadi / emakumeak	
1- Amurrio.....	46	1- Vitoria.....	13 (+310)	1- Abaroa.....	15 (+189)
2- Portugalete.....	46	2- Baskonia Fund.....	12 (+125)	2- Bera Bera.....	15 (+298)
3- Elgoibar.....	45	3- Logroño.....	11 (+180)	3- Gernika.....	13 (+201)
4- Lagun Onak.....	43	4- Ardoi.....	11 (+94)	4- Ardoi.....	12 (+117)
5- Gernika.....	42	5- Arabako EHU.....	10 (+75)	5- Getxo.....	12 (+94)
6- Beasain.....	38	6- Bide Bide.....	8 (-41)	6- Tabirako.....	11 (+121)
7- Zamudio.....	37	7- Tabirako.....	6 (-45)	7- Obenasa.....	10 (+37)
8- Zalla.....	32	8- Pamplona UPNA.....	4 (-91)	8- Atletico SN.....	10 (+22)
9- Leioa.....	31	9- Goierri-Verkol.....	2 (-368)	9- Arabako EHU.....	8 (-19)
10- Santurtzi.....	31	10- Getxo.....	2 (-239)	10- Las Gaunas.....	6 (-160)
11- Kulturala.....	30			11- Artieda.....	6 (-111)
12- Baskonia.....	29			12- Irlandesas.....	6 (-159)
13- Arenas Getxo.....	28			13- Uni. Navarra.....	6 (-16)
14- Amorebieta.....	28			14- Easo.....	4 (-204)
				15- Loiola.....	3 (-182)
				16- Astigarraga.....	3 (-228)



Durangoko Kulturalak 32 gol sartu eta 30 jaso ditu orain arte

AMALURRA>



Durangoko
Merinaldearen
Amankomunazgoa



Aldaketa klimatikoaren inguruko ordenantza onartu dau Durangok

Aldaketari balazta jarri asmoz, hainbat administrazino eta erakunde dabil lanean

Tokiko Agenda 21eko ekintza planagaz bateragarria izango ei da ordenantza barria

Alderdien gehiengoak egin dau ordenantzaren alde, batzuek bere eraginkortasunean larregi sinesten ez daben arren

Eguraldia da egunotako ber-
bagai nagusi. Igogailuko sola-
saldi behartuko oinarri izate-
tik, telebistako lehen albiste izate-
ra pasatu da, eta emoten dauenez,
denpora batean halantxe izango da;
horixe dinoe, behintzat, adituek.
Jentearen kexak ohikoak bihurtu
dira dagoeneko: hotza egiten daue-
la, euria ez dela geratzen, elurrak
arazoak dakarzela errepidean...
Ukatu ezin dena da gure klima alda-
tzen dabilela urteetan zehar, eta,
batzuen ustez fenomeno naturala
den bitartean, beste batzuen erit-
ziz guk geuk eragindakoa da.
Aldaketa klimatikoaren eztabaida
pil-pilean dago.

Aldaketa horri balazta jartze-
ko asmoz, hainbat erakunde eta
administrazino lanean hasi dira;
hain zuzen be, Durangotik jatorku
gai honegaz loturiko azken noti-
zia. Durangoko udalbatzarrak,

lhobek proposatutako aldaketa
klimatikoaren kontrako ordenan-
tza onartu dau.

Tokiko Agenda 21

EAJk, PSE-EEk, PPk EB-Berde-
ek eta Aralarrek egin eben aipa-
tutako ordenantzaren alde. Talde
Mistoko zinegotziak, barriz, abs-
tenitu egin ziren. Ordenantzak
"potentziala" daukala onartu
arren, dagoen "gaiagazko hipo-
kresia" nabarmendu eben, "par-
te-hartzea eta herritarren inplika-
zinoa bultzatzeko beste formatu
bat" behar dela argudiatuz.

Aitziber Irigoras alkateak
esan ebanez, Durangok azken
urte bian landutako Tokiko Agen-
da 21eko ekintza planagaz bate-
ragarria izango da ordenantza;
izan be, planean landutako erizpi-
de batzuk batzen ei ditu.

Hainbat arlo batuz (mogikor-
tasuna, airearen kalitatea..) "esangura osotua" jasotzen
dauela azpimarratu eban Irigora-
sek, ikuspegi globala zainduz.
Herritarren parte-hartzeari be
garrantzia emon eutsan.

Urtebeteko epean, ekimen
zehatzez osatutako egitasmoa
osotzea jasotzen dau ordenan-
tzak, eta, Aralarren ustez,
"orduan ikusiko da honek eragina
daukan ala ez". Aralarrek gogora-
tu eban negutegi efektuan eragi-
ten dauen CO2 isurketa murriz-
teko egin leitekeena hartu behar
dela aintzat, testuinguru moduan.

EB-Berdeek eritzi, "garran-
tziatsua da herritarren artean
borroka hori zabaltzea". PPk Kio-
toko protokoloa nabarmendu
eban, eta sozialistek kontzientzia-
zinoaren aldeko jarrera erakutsi
eben.

OSASUN GIDA

AKUPUNTURA



MINKENDU

AKUPUNTURA (orratz gabe ere)
ETA MINAREN AURKAKO
TERAPIAK

Alberto Murua
Andra Mari, 18 • 48200 DURANGO
tf. 662 270 770

FISIOTERAPIA




OREKA LASAI-GUNEA

- YOGA
- YOGA (UMEAK)
- KIROL-MASAJEA
- PILATES
- TAILANDIAR MASAJEA
- MASAJE KURTSOAK

Anduetxeta, 6 - behea
48230 ELORRIO

tf. 94 658 47 96

PODOLOGIA



JON GERRIKAETXEBARRIA PENÁ

PODOLOGIA KONTSULTAK:
oinen gaitzak, ortopedia eta zirugia

Ermodo, 2- 1. eskuma
48200 DURANGO

tf: 94 620 11 00

ODONTOLOGIA



B. UNAMUNZAGA E. ETXEBARRIA

ODONTOLOGIA OROKORRA
ETA ESPEZIALITATEAK

Murueta Torre, 2- C behea
48200 DURANGO

tf: 94 681 99 51



FISIOTERAPIA ETA ERREHABILITAZIOA

Erditze aurreko eta ostekoa, txisari
ezineustea, traumatologia, kirola, trafikoko istripua,
drainatze linfatikoa(masektomia ondoren),...

Iturriza, 44 -behe ezk.
48240 BERRIZ

tf. 94 622 55 93

OPTIKA



ZENTRU OPTIKOA

Teknika aintzindariak, kontaktologia, haurren
ikusmena, ikusmen terapia, audiometria
NAHIA ZABALA eta AITZIBER ZABALA

Arkaraz, 3
48240 BERRIZ

tf: 94 622 50 99



PABLO ZUBIZARRETA

FISIOTERAPIA
&
OSTEOPATIA

Muruetatorre, 2D
48200 DURANGO

tf: 94 655 00 49 / 695 784 963

PSIKOLOGIA



JON ARRUABARRENA

PSIKOLOGO KLINIKOA
Portaera, depresio, loezin, antsietate,
bikote, eskola-atzerapen, anorexia,
bulimia. Jokabide terapien masterduna.

www.psicologo.biz
Frantzizko Ibarra 6
48200 DURANGO

tf: 94 603 32 46 - 629 245 728

KIROMASAJEA



KIROMASAJEA DIGITOPUNTURA

Komentu kalea 15
48200 DURANGO

tf. 94 620 00 52



HIRU FISIOTERAPIA

astelehenetik - ostiralera 08:00 - 21:00
larunbatak 09:00 - 13:00


Antso Estegiz, 4
48200 DURANGO

tf. 94 466 94 00

IRAGARKIAK

LANA

-Eskakerak
-Eskaintzak
ETXEBIZITZAK
-Salgai
-Errentan eman
-Errentan hartu
-Pisua konpartitu
IRAKASKUNTZA
-Klaseak hartu
-Klaseak eman
MOTORRA
-Salgai
-Erosi
LOKALAK
-Errentan eman
-Errentan hartu
ANIMALIAK
-Salgai
-Erosi
BESTEAK
-Berba egin
-Salgai



Eguazten arratsaldeko 18:00ak arte jasotako iragarkiak soilik argitaratuko ditugu. Mezuak jaso eta hurrengo alean publikatuko dira.

Zure iragarkia argitaratzeko:
Bidali ANB (tartea) eta zure iragarkia 7789 zenbakira. Mezu bakoitza: 1,2 euro + BEZ

IRAGARKI PARTIKULARRAK
Ordaindutako moduloak fondo beltzagaz eta letra zuriz argitaratuko dira.

IRAGARKI PROFESIONALAK
Modulo bat, astero: 7 euro (BEZ barne)

Edozein motako iragarkiak kontratatze honako telefonora deitu: 94 621 79 02

Mutil euskalduna umeak zaintzeko prest, arratsaldetan eta asteburuetan.
Tel.: 660 464 851

Turismo ikasketadun neska turismo eta ostalaritza arloan lan egiteko prest: hotelak, agentziak, tabernak...
Tel.: 646 841 206

Neska umeak zaintzeko, etxeak garbitzeko edo tabernan lan egiteko prest. Tel.: 690 370 178

Denda eta enpresen kontabilitate eta fiskalitatea eramateko prest nago. Ekonomikoa. Tel.: 635 715 928

Neska gaztea portala garbitzeko prest dago. Tel.: 666 691 003

Lan Harremanetan diplomadun neska durangarra administrari, kometzial, harreragile... moduan lan egiteko prest. Esperientziaduna.
Tel.: 677 153 135

Garbiketan edo/eta ume zein adinekoak zaintzeko prest nago. Egun erdiz edo osoan.
Tel.: 680 302 861

Neska euskalduna edozein lan mota egiteko prest, edozein ordutegitan. Esperientzia lantegietan, zerbitzari bezala, umeekin... Tel.: 647 008 625

Teknikari laguntzaile klinikoa adineko pertsonak zaintzeko edo lagun egiteko prest dago. Tel.: 636 025 493

ETXEBIZITZAK

SALGAI

Otxandio. Etxebizitzak salgai. Salmenta zuzena, konstruktorearekin. Prezio eta etxe interesgarriak.
Tel.: 676 018 586

Elorrio. Etxebizitza salgai. 3 logela, komuna, sukaldea, egongela eta trastelekua. Guztiz berriztuta, oso eguzkitsua eta polita.
Tel.: 617 787 165

Berriz. Etxea salgai. egongela, bi logela, sukaldea eta komuna. Berriztuta, berogailuz eta altzariz hornitua. Tel.: 667 064 942. Olatz.

Durango. Pisua salgai Artekalen. 6 logela, komun 2, sukaldea, despentsa eta egongela. Etxebizitza 2 egiteko aukera. Tel.: 657 791 028

ERRENTAN EMAN

Apartamentua alokagai Marina Dorren. Urtean zehar edozein denporalditan erabiltzeko moduan. Tel.: 670 214 924 (Miren) eta 610 539 991 (Santi)

Durango. Gela handi bi alokagai Durango erdialdean. Kontaktua: lujanok@gmail.com

OHARRA

Eroski Moviak ez du zenbaki laburretara mezuak bidaltzeko zerbitzua eskaintzen. ANBOTOK, kasu horretan, ez dauka inongo erantzukizunik.

Berbaro elkarrekin

Gazte arlorako laguntzailea behar du. Lanaldi erdiko kontratua, berehala hasteko.
Tel.: 94 620 19 18
berbaro@berbaro.com

AUKERA

Durango bideokluba traspasatzen dut. Gozokiak saltzeko gunea dauka eta vendingeko makina bat kanpoan.
27.000 euro (lehen 42.000). Zonalde interesgarria.
Tel.: 658 724 574

ANTZERKIA gustoko

baduzu anima zaitez Elorrioko 'Arrapaladan' taldean parte hartzera arrapaladan@hotmail.com
635 74 49 71

LANA

ESKAERAK

Abadiño. irakasle bat behar da antzerki talde batean umeendako tailerrak antolatzeko. Derrigorra da euskaraz jakitea. Tel.: 666 379 572. Deitu 13:00etatik 15:00etara. Erlantz.

Durangaldea. Eskualdean zabalduko den hortz-klinika batean odontologia laguntzailea behar da. Derrigorra da euskaraz jakitea. Esperientzia baloratuko da. Bidali CVak Abadiñoako Txirri-Txirri gozoki dendara (Zeletabe 8c behean).

Pertsona euskalduna behar da dendari lan egiteko.
Tel.: 943 77 00 34 / 943 77 13 52

Pertsona bat behar da goizetan etxeko lanak egiteko eta umeak eskolara eramateko. Tel.: 618 896 591

Iurreta. Jatetxe batean asteburuetan lan egiteko lagun bat behar da.
Tel.: 94 681 78 47

Durangaldea. Durangaldeko Geu Be elkarrekin gizonezko begiraleak behar ditu arratsaldean lan egiteko. Interesatuek bidali curriculumak: afngeube@yahoo.es.
Tel.: 94 621 72 68

Durango. Modelatzailea behar da 3Dn egingo den animazio luzemetrai batean lan egiteko. Lan egun osoa. Erreferentzia: 78. SARTU. Tel.: 94-620 04 49. Lanbiden alta emonda egon behar da.

Durango. Blend Shapes teknikoa behar da 3Dko luzemetrai batean lan egiteko. Lan egun osoa eskaintzen da. Erreferentzia: 79. SARTU. Tel.: 94-620 04 49. Lanbiden alta emonda egon behar da.

Durango. Set Up teknikoa behar da 3Dko luzemetrai baterako. Lan egun osoa. Erreferentzia: 81. SARTU. Tel.: 94-620 04 49. Lanbiden alta emonda egon behar da.

Durango. Testurizatzaila behar da 3Dko luzemetrai baterako. Lan egun osoa. Erreferentzia: 87. SARTU. Tel.: 94-620 04 49. Lanbiden alta emonda egon behar da.

Durango. Aseguru merkataria behar da, bezeroak bilatu eta mantentzeko. Derrigorra da gaztelera menperatzea eta Durangaldean bizitzea. Erreferentzia: 153. SARTU. Tel.: 94-620 04 49. Lanbiden alta emonda egon behar da.

Zornotza. Logopeda behar da ordezkapena betetzeko. Lanaldi erdia. Derrigorra da diplomatura izatea eta euskara menperatzea. Erreferentzia: 656. SARTU. Tel.: 94-620 04 49. Lanbiden alta emonda egon behar da.

Zornotza. Automozio elektrizitateko teknikaria behar da. Derrigorra da 10 urteko esperientzia izatea eta inguruan bizitzea. Erreferentzia: 886. SARTU. Tel.: 94-620 04 49. Lanbiden alta emonda egon behar da.

Durango. Topografo laguntzailea behar da. Kanpoan eta gabinetean lan egiteko. Derrigorra da heziketa izatea eta inguruan bizitzea. Erreferentzia: 889. SARTU. Tel.: 94-620 04 49. Lanbiden alta emanda egon behar da.

Zornotza. Aseguru teknikaria behar da. 25 eta 45 urte bitarteko pertsona bilatzen da. Esperientzia baloratuko da. Erreferentzia: 11.707. SARTU. Tel.: 94-620 04 49. Lanbiden alta emanda egon behar du.

ESKAITZAK

Haur hezkuntzako ikasle euskalduna arratsaldetan umeak zaintzeko eta lanetan laguntzeko prest.
Tel.: 625 707 831

Andra euskalduna pertsona nagusiak zaintzeko prest.
Tel.: 94 620 11 85
eta 699 745 723. Ines.

Astehenetik ostiralera bitartean garbiketak egin, umeak zaindu edo pertsona nagusiak zaintzeko prest.
Tel.: 637 055 978

Neska gaztea Elorrioren portala garbitzeko edo etxeko lanak egiteko prest. Tel.: 657 461 674

INMOBILIARIARIK



ETXEBIZITZA BERRIAK

- Andra-Mari: Apartamento berriak salgai.
- Zaldibar: Eraikitzen dauden etxebizitzak salgai.
- Abadiño: Txaleto bifamiliarra lur eremuarekin salgai.
- Atxondo: Adosatua lursailarekin salgai.
- Atxondo: Baserria salgai.
- Erretentxu: Adosatua eraikitzen.
- Erretentxu: Txaleto bifamiliarra eraikitzen.
- Otxandion: Adosatua. Eraikuntza berriak.
- Otxandion: Familia bakarrekoe etxea lursailarekin salgai.

ETXEBIZITZA SALGAI

- Alluitz: Halla, sukalde jantzia, egongela- jangela, 4 logela, 2 komun, 2 balkoi.
- Montebideo: Halla, sukalde-jantokia, logela bakarra, komuna eta balkoia. Etxe jantzia, igogailua. Eraikuntza barria.
- Montebideo: Halla, egongela-jangela, sukaldea, 2 logela, 2 komun eta balkoia. Etxe jantzia, igogailuarekin eta berogailua hiriko gasarekin.
- Andra Mari: Estudioak guztiz berriztuta.
- Andra Mari: Halla, sukaldea, jangela, egongela, 4 logela, 2 komun, egongelatxo. (135 m2).
- Ambrosio Meabe: Halla, egongela-jangela, sukalde jantzia, 2 logela, komuna eta ganbara.
- Montebideo: Halla, egongela- jangela, sukaldea, 5 logela, 3 komun. Terraza eta ganbara. 150 m2.
- Abadiño: Halla, egongela-jangela, sukalde jantzia, 3 logela, 2 komun. 2 Garaje. Etxe guztiz jantzia.
- Abadiño - Matiena: Halla, sukaldea, egongela, 2 logela, komuna eta ganbara.
- Abadiño: Berriztatze. 3 solairuko etxea.
- Bedia: Halla, egongela-jangela, sukalde jantzia, 3 logela, 2 komun eta balkoia. Hobekuntzekin.
- Berriz: Halla, sukalde jantzia, egongela-jangela, 2 logela, eta komuna. Balkoia. Garajea eta trastelekua. Guztiz jantzia.
- Berriz: Halla, egongela-jangela, sukalde jantzia, 4 logela, 2 komun. 2 balkoi eta ganbara. Eguzkitsua. Kanpora ematen du.
- Ermodo: Halla, egongela, sukalde-jantokia, 2 logela, 2 komun.

Berriz. Pisua alokagai. 87m2. Tren geltokitik hurbil. 20:00etatik aurrera deitu. Tel.: 94 622 56 73

Torre viejako Bungalo bat alokagai. 3 logela, terraza, solariuma, igerilekua eta gune berdeak. Tel.: 615 779 622

Durango. Pisu bat alokagai. 2 logela, saloia eta sukalde hornitua. Tel.: 620 773 947

Zaldibar. Apartamentua alokagai; bikote batentzako modukoa. Leku onean. Tel.: 665 707 664

ERRENTAN HARTU

Durango. Bikote gaztea alokatzeko pisu bila.Hilean 500 euro inguru.. Tel.: 647 897 647

Durangaldea. Alokairuan hartzeko baserri baten bila nabil. Tel.: 671 098 553

Durango. Konpartitzeko pisu edo etxe bila nabil.Tel.: 666 202 273

Durango. Alokatzeko pisu bila gabiltza.Tel.: 659 088 185

Elorrio. Bikote gaztea gara, eta alokatzeko etxe bila gabiltza. Tel.: 677 483 917

KONPARTITU

Abadiño. Baserri berriztatua konpartitzeko etxekide bila gabiltza. Tel.: 678 019 005

Durango. Pisua konpartitzeko pertsona baten bila gabiltza. Tel.: 661 847 937

IRAKASKUNTZA EMAN

Ingeles eta aleman klase partikularrak ematen ditut. Tel.: 678 019 005

Mutil euskalduna LH-n klase partikularrak emateko eta euskarazko errefortzua emateko prest dago. Tel.: 620 247 159

Berezitasunak dituzten haurrekin lan egindako neska euskalduna eskola partikularrak emateko prest dago. Tel.: 650 874 594

HARTU

Italiera klaseak hartzeko interesa daukat. Tel.: 620 218 271

MOTORRA SALGAI

Peugeot 205 diesela salgai. 1.000 euro. Tel.: 679 475 785

Seat Altea 2005 TDla salgai. Aukera onekoa. Tel.: 675 212 960 / 696 135 954

Maxiscooter Yamaha Tmax 500 ABS salgai. 2006 urtekoa. Extra guztiekin. 5.600E. Tel.: 628 413 848

Fiat Grande Punto 1.4 salgai. 75 zaldi Gasolina. 2006 urtekoa. Egoera onean. 5.000E. Tel.: 695 594 105

Renault Megane 1.9 TDa salgai. 1996 urtekoa. Oso ondo dabil. 1.400E. Tel.: 600 611 601

Fun roller autokarabana salgai. 2003 urtekoa. 54 km. Motorra Fiat 2.8 JTD. 127 zaldi. 24.000E. Tel.: 690 827 252 / 94 622 50 78

Lancia Libra SW (familiarra) salgai. Egoera onean. 8 urte. 4.500E. Tel.: 94 622 56 73

GOLF GTIa salgai 140CV 80000Km 7000E. Tel.: 687 539 898

ANIMALIAK SALGAI

Alemaniar artzai-txakurrak. Kumak salgai ditut, pedigreearekin. Tel.: 655 749 239

OPARI

Epagneul breton arrazako txakurra oparitzen dut. Bost urte ditu. Paseorako aproposa. Tel.: 622 266 911

LOKALAK

ERRENTAN EMAN

Berriz. Garaje itxia alokagai. Kotxe bat sartzeko modukoa. Tel.: 94 622 56 73

Elorrio. Garaje itxia alokagai Nizeto Urkizu kalean. 60 euro hilean. Tel.: 676 018 586

Durango. Garajeko plaza alokagain da, Jesuiten inguruan. Tel.: 94 655 06 04 / 667 201 516

Elorrio. Kafetegi bat alokagai. Tel.: 610 883 670

Abadiño. Garagea alokagai Muntsaritzen. Tel.: 634 403 450

BESTEAK

SALGAI

Lur-saila. Zornotzako Larrean lur-saila salgai. Laua, uragaz eta bideagaz. Argindarra bertan. Oso polita, erreka­gaz. Tel.: 94 622 51 75

Mendiko bizikleta. 2008ko dirt jumpeko scott voltage yz. Oso egoera onean (behin erabilia), 475 eurotan. Tel.: 655 706 713

Mendiko bizikleta. 2008ko scott gambler fr10 (DH/free ride). Oso egoera onean (goitik behera berrikusia). 2.375 eurotan. Tel.: 655 706 713

Bi technics sl-clz 1.200 (cd platoak) berriak salgai. Garantiarekin. 1.200 euro biak. Negoziatzeko aukera. Tel.: 616 095 655 (deitu 18:00etatik aurrera)

Sutarako pago eta haritz egurra. Edozein neurritan salgai. Etxerako bidalketa. Tel.: 644 194 722

Trikitixa. 1.000 eurotan. Tel.: 687 281 981 (Iñaki)

Telebista. 32 pulgadakoa, SANYO marka. TD­Ta badauka. Oso egoera onean. Tel.: 655 739 792

Basoa. 42.000 m-ko basoa salgai. Orixol mendiaren azpian. Tel.: 600 313 200

EROSI

Basoa. Lur zati bat erosiko nuke Durangon edota Durango aldean. Ez zait axola txikia izatea edota leku ez oso eros­oan egotea. Tel.: 676 685 052 eta 660 369 973

BEREZIAK

Atxondo. Karabanak gordetzeko zerbitzua. 900 m2-ko lokala. Tel.: 618 608 908

Autoa konpartitzen dut Gasteiztik Otxandiora joateko, astelehenetik ostegunera. 09:30etik aurrera. Tel.: 945 46 14 67 edo 615 723 077

Karabana eta autokarabanak godetzeko zerbitzua eskaintzen dugu. Garbitokia, gurpil eta balazten ikuskapena, uraren karga eta lanzaren olio­ztatzea. Tel.: 685 752 339

Dantzariak ezkontza eta ospakizunetan aritzeko prest. Txalapartariak eta trikitilariak ere gehitu daitezke. Tel.: 617 084 902

Eskuko desbrozadorarekin garbiketak egiten ditut. Orduko kobratzen dut. Tel.: 619 552 202

Txistularia eta dantzaria eskaintzen dira ospakizunetan Agurra egiteko. Tel.: 605 732 108 edo 657 776 469

Denetariko margogintza artistikoa egiten dugu. Altzarien eraldatzea, margolanen erreprodukzioa eta marrazkiak zurezko zoru­etan. Tel.: 678 704 197



Indakete konpartitua eta zozkaketak • Gasteizko zozkaketak • Inmobiliaria

Urarka 1 behekoa • 48230 Elorrio Tel.: 94 682 00 41 Faxa: 94 623 16 30 • argiñeta@euskalnet.net • www.argiñeta.net

ETXEBIZITZA SALGAI

ELORRIO

18 TXALET ADOSATUEN PROMOZIO BERRIA NIZETO URKIZUN. ERAIKITZEN HASITA. PLAZATIK 200 M-TARA.

BERRIZ

PROMOZIO BERRIA. 2 eta 3 logelako 20 etxebizitza. P89: 90 m2. 3 logela, egongela, sukaldea eta 2 komun. Trastelekua eta garajea. Eguzkitsua.

ATXONDO

PROMOZIO BERRIA.1, 2, 3 eta 4 logelako etxebizitzak. Leku onean. 44 etxebizitza.

ABADIÑO

C20: Txaleta. 193 m2 lau solairutan. 3 logela, egongela, sukaldea eta 4 bainugela. Garajea, txokoa eta atikoa. Berria. P79: 85m2. 3 logela, sukaldea, egongela eta 2 bainugela. Atikoa. Garajea eta trastelekua. Ia berria.

DURANGO

P81: 90 m2. 4 logela, egongela, sukaldea eta komuna. Eguzkitsua.

ZALDIBAR

P90: 72 m2. 3 logela, egongela, sukaldea eta komuna. Despentsa eta trastelekua.

ELORRIO

P80: 72 m2. Ia berria. 2 logela, egongela, sukaldea eta 2 komun. Trastelekua eta garajea. P83: 92m2. Dena barriztuta. 3 logela, egongela, sukaldea eta 2 komun. Guztiz jantzia. Zentrikoa. P77: 68 m2. Guztiz barriztatuta. 2 logela, egongela-sukaldea eta bainugela. Jantzia. Oso polita. Berogailu radiantea. 90m2-ko lorategia. ß P76: 44 m2. Berria. Atikoa igogailuarekin. Logela bakarra, egongela, sukaldea eta bainugela. Gas naturaleko berogailua. ß P65: 30 m2. Ia berria. Atikoa: logela 1, sukalde-egongela eta komuna. Igogailua. Prezio ona. Gas naturaleko kalefakzioa.



Inmobiliaria del Duranguesado

Askatasun etorbidea, 10 48200 DURANGO Tel./Faxa:94 681 66 66 inmobisd@euskalnet.net www.inmoduranguesado.com

ETXEBIZITZA SALGAI

- Tabira: Luxuxko etxebizitza berrien promozioa.
- Mañaria: Etxebizitza berriak estreinatzeko, erosi ia alokairu gisa.
- Durangaldea: Baserriak eta txaletak aukeran.
- Zaldibar: Lur saila salgai. Eraikitzeko aukera.
- Aramotz: 2 logela, egongela eta komuna. Bizitzen sartzeko prest.
- Aramotz: 3 logela, egongela eta 2 komun. Garaje bikoitza 28 m2 kanpoaldera ematen duena.
- Ezkurdi: 3 logela, egongela, sukaldea eta barriztatu beharreko 2 komun.
- Askatasun Etorbidea: 3 logelako etxebizitza dotorea, egongela-sukaldea eta 2 komun. Garajea eta trastelekua.
- Durangon: 4 logela, jangela, egongela, 2 komun eta bainugela. 2 ganbara eta garaje bikoitza. Eguzkitsua.
- Askatasun Etorbidea: Duplexa. 2 logela, egongela, sukalde jantzia eta komuna. Eguzkitsua.
- Fray Juan de Zumarraga: Duplexa.Ezin-hobea.
- Zabale: 90 m2-ko etxebizitza polita. Garajea eta ganbara. Eguzkitsua.
- San Inazio: 2 logela. Azkeneko solairua. 80 m2-ko TERRAZA. Eguzkitsua. Prezio interesgarria.
- San Inazio: Beheko solairua. Pertsona nagusientza-ko egokia. Gurpil-aulkiei egokitutako atea­k dituen etxebizitza.Hego-Mendebalderuntz orientatua.
- Herriko Gudarien kalean: 100 m2. 3 logela, egongela, sukaldea eta 2 komun. Oso eguzkitsua. TERRAZA handia.
- Tronperri: Ezin-hobea. 3 logela, egongela, sukalde berria jantzia eta 2 komun. Garaje itxia eta ganbara. Prezio onean.Bizitzen sartzeko prest.
- Murueta Torre:Leku-aldatzea dela eta etxebizitza ezin-hobea saltzeko premia. 3 logela, egongela, sukaldea eta 2 komun. **Balkoia**. Garajea eta trastelekua.
- Landako Txibitena: 2 eta 3 logela. Ezin hobeak.
- Txibitenan: 3 logela, egongela, 3 komun, sukaldea eskegitokiarekin. **Balkoia**. Garaje aeta trastelekua.
- Tabira: Beheko solairua. 2 logela, egongela, sukalde jantzia eta komuna. 70 m2-ko lorategia. Garaje itxia.
- Tabira: 3 logela, egongela, sukalde jantzia eta 2 komun. Garajea, trastelekua eta ganbara. Eguzkitsua.



G. INMOBILIARIA

Fray Juan de Zumarraga, 4. aitorioaifonemail.com Tel.: 94 681 40 40 DURANGO

ETXEBIZITZA SALGAI

- Goienkalen: 3 logela. Bizitzen sartzeko prest. 186.300 €.
- Durangon: Eguzkitsua. 168.280 €.
- San Ignazio: 3 logela eta 2 komun. Kanpora ematen du. Eguzkitsua. Terraza. Garajea aukeran.
- Frantzisko Ibarra: 100 m2. Eraikuntza berria. Pisu altua. Terraza. Garaje itxia.
- Murueta Torren: Azkeneko solairua terrazarekin. 3 logela. Garajea eta trastelekua.
- Mendizabal­en: 2 logela eta 2 komun. Eguzkitsua. Ganbara eta garajea.
- Antso Eztegizen: 3 logela, komuna eta egongela. Terraza. Eguzkitsua.
- Zeharkalean: 2 eta 3 logelako etxebizitzak. Komuna eta egongela. Ganbara. 210.350 €.
- Ezkurdin: 150 m2. 4 logela, 2 komun eta egongela. Terraza. Aire giro­tua. Garajea.
- Tabiran: 2 eta 3 logelako etxebizitzak. Berriak.
- Ezkurdin: 70 m2. 1.go solairua.

IURRETA

- Bidebarrietan: 75 m2. 3 logela, komuna, egongela eta sukaldea. Despentsa. Igogailua.234.400 €.
- Maspe kalean: 70 m2.3 logela, egongela, sukaldea eta komuna.Igogailua.235.000 € (39 mill).

MATIENA

- 3 logela. 210.000 €

ABADIÑO

- Estreinatzeko. 1 eta 2 logelako etxebizitzak. Egongela, 2 komun eta sukalde jantzia. Ganbara eta garajea. Guztiz kanpora ematen du.

MAÑARIA

- 2 solairuko etxea 1.400 m2-ko lur-sailarekin.

BERRIZ

- San Antonion: Berriztatuta. 210.400 €.

ZALDIBAR

- 3 logela. Trastelekua. Bizitzen sartzeko prest. 201.300 €.

ATXONDO

- Duplexa: 120 m2. 3 logela, 2 komun eta egongela.

ELORRIO

- Estreinatzeko. 336.000 €.

ALOKAIRUAN

- ABADIÑO: Baserria ortuarekin. 4 logela.



San Agustinalde, 4 - 1 Eak.DURANGO TE: 94 681 35 62 email: iamboto@euskalnet.net

ETXEBIZITZA SALGAI

DURANGO

- Apartamento berriak eraikitzen.700 € hilero.
- Andra Mari: 110 m2. 3 logela, komuna, egongela eta sukaldea. Leku onean.
- Erdialdea: Apartamentu berriak. Logela bat edo bikoak. 172.000 €-tik hasita.
- San Inazio Auzunea: Berriztatu berria. 3 logela, (logela printzipala komun eta jantzigelarekin), 2 komun, sukaldea eta egongela balkoiarekin. Aire giro­tua. Ganbara eta garajea.
- Bolivar: 2 eta 3 logelako etxebizitza berrien eraikuntza. Garaje itxiak.Durangotik 15 minutura. 174.000 €-tik hasita. ORDAINKETA MODUAK NEGOZIATZEN DIRA.
- Barrenkale: Azkeneko apartamentuak eta duplexak. Eraiki berriak.
- Franzisko Ibarra: Logela bakar­reko apartamentua. Garaje eta ganbara. Berriztatuta.
- Askatasun Etorbidea: 125 m2. 3 logela, 2 komun, sukaldea eta egongela. Ganbara, garajea eta trastelekua. Guztiz kanpora ematen du.
- San Inazio auzunea: 2 logela, 2 komun, sukaldea eskegitokiarekin, egongela. Eraiki berria. Guztiz berria estreinatzeko.
- Astarloa: 3 logela, egongela balkoiarekin, sukaldea, eta komuna. Ganbara.
- Tabira: Estreinatzeko. 3 logela, 2 komun, sukaldea balkoiarekin eta egongela. Garaje itxia eta trastelekua.
- Fray Juan de Zumarraga: 2 logela, sukalde-jantokia, egongela txikia eta komuna. Despentsa.
- Juan Antonio Abasolo: 3 logela, komuna, egongela eta sukaldea. Prezio interesgarria.
- Zubiaurre: 2 logela, 2 komun, egongela, sukaldea eta garaje itxia.Guztiz berria.Estreinatzeko.

IURRETA

- 2 logela, komuna, sukaldea eta egongela balkoiarekin. Igogailua. Gas naturaleko berogailua. Prezio interesgarria.



Narru Jatetxea

San Agustin 22, Elorrio
Tel.: 94 658 49 34

Gosariak goizeko 8:00etatik.
Pintxoak. Eguneko menua.
Menu bereziak. Kartan, aukerako
okelak txingarretan.



Betixu Jatetxea

Iturburu, 9 Iurreta
Tel.: 94 681 78 47

Astelehenetan itxita. Janariak
jantokian: asteartetik igandera.
Afariak jantokian: ostegunetik
larunbatera. Razioak terrazan.



Pedro Juan

San Antonio, 1 Berriz
Tel.: 94 682 62 46

Eguneko menua.
Karta.
Domeka, astelehen eta
martitzen gauetan itxita.



Plateruena kafe antzokia

Landako etorbidea 4-a
Tel.: 94 603 03 00

Eguneko menua astelehenetik
zapatura.
Taldeentzako menu adostuak.
Askariak.

Jatetxe gida



Agarreko Jatetxea

Industrialdea Arriaundi, Iurreta
Tel.: 94 623 26 04

160 lagunentzako jantokia.
Ezkontzak, jaunartzeak, enpresa
bazkariak... Eguneko menua, karta,
menu bereziak.



Templete Jatetxea

Hotel Kurutziaga, Durango
Tel.: 94 620 08 64

Ospakizunak.
Karta.
Eguneko menua.
Menu berezia.



Ganeko Etxe

Elizondo, z/g Berriz
Tel.: 94 682 40 27

Aintzinako baserri baten gerizpe
gozoan, etxeko moduan sentitzeko.
Arrain errea kartan.
Eguneko menua: 8 euro.



Jon Soloeta Huri-Barrena Jatetxea

Huribarrena 8, Otxandio
Tel.: 945 45 01 25

Karta. Ardoak.
Eguneko menua.
Asteburuetan menu berezia.

AKUILUAN

■ Aitziber Basauri ■ Argazkia: Iban Gorriti

LAUHORTZA



Miren Amuriza
Ikaslea

"Larrosa izaten da maiteminduen eguneko opari ohikoena orain be"

Biola eta akordeoi ikasketak egin zituen, eta lorazaintza dau ogibide Iñaki Uribesaldo iurretarrak

Loradendan 10 urte daroaz. Durangoko plazan saldu izan ditu aitarien ortuan hazitako lora eta landarak. Loradendako banaketarako bizikleta erabiltzen dau, eta biola eta akordeoia jotzen ditu.

Oraindino be denporarik hartzen dogu landarak zaintzeko?
Gitxiago etortzen dira hau edo beste galdetzerak. Zer erosi bada-kiela datoz datozenak; opari, erramu, landara... zehatza erostera.

Zer behar da etxean dogun lora edo landara zaintzeko...

Asko datoz erramu baten bila, astebete inguru iraungo dauena. Halan be, lan asko be ez dau eskatzen landara batek, astean behin edo birritan ureztatzea behar da. Zainketa apur bat behar dau.

Zeintzuk doguz gustukoak?

Batez be, loradun landarak gura ditu jentekak. Orkidea be oso tipikoa da. Koloredunak: gorriak, laranja, oriak... loradunak. Ikusgarriak, zelanbait esateko.

Fruitu-landarek gero eta leku gehiago daukie gure etxetan?

Horreek gehiago dira lorategietarako. Etxean edukitzeko, loreontzi handia be behar da,

lur askogaz. Laranjondo txikiak, mandarinondoak, limoiondoak... batez be, baserri-etxetan eta edukitzeko dira egokiak. Handitzen doaz, eta balkoia txiki geratzen da.

Lora bakotxak badauka bere esangura...

Badago ironiaz dinonik: "Kaktusa hartuko deusat amaginarrebari". Tradizinoekin lotuta, askok galdetzen dau "diruaren landaregaitik" be, zortea emoten daue-lakoan-edo. Koloreei jagokenez, gorriak grina eta horiak jelsia adierazoten dau...

Maiteminduen eguna be bajatorku... Krisiak eragingo dau?

Oraindino mantentzen den ohitura dalorakoparitzea. Larrosa da berezkoa, orki-

dea be ondo saldu arren. Krisiak izan leike eraginik; baita zapatua jaustek be. Astebarruan denean, mugimendu gehiago izaten da; oparirako, detaileetarako... joera handiagoa izaten da astean zehar.

Banaketarako bizikleta erabiltzen dozu, ezta?

Bai, gustuko dot. Denpora aurret-ten dodalako, ekonomikoagoa delako... Eta bestelako mila arrazoi be badagoz: ez dozu kutsatzen, ariketa egiten dozu... Banaketa egiteko ez eze, bestela be ahal dodan guztietan erabiltzen dot bizikleta. Halan be, inguruak ez dagoz bizikletendako egokituta, eta gehiago inplikatu behar litza-kez erakundeak.

Eta lora sikuak noiz dira aukerarik onena?

Lanik hartu gura ez denean. Etxea apaintzeko erabiltzen dira asko, eta orain hilerrirako be bai. Egun gitxitan ihartu leitekez lora edo landara naturalak, beraz lora zikue-tarako eta telazkoetarako joera handia dago. Gehiago irauten dabe. Orain dela gitxi andra bat etorri jatan 22 urte zituen lora-zentro bategaz. Hautsez bete-

ta eta guztiz hondatuta zegoen, baina, hori daamortizatzea!

Maiteminduen egunerako lorak baino, zuk zeuk, beharbada, gura-go dozu musika piezaren bat... Izan be, soinu-jolea zara...

Bai. Zeremonietan korda lau-ko-tean jarduten dogu. Soinu-jotzai-le lez jubilatuekin jarduten dot, batez be; erromeriak, bazkariak...

Musika eta artisautza, ofizio ala afizino lez gurago?

Artisautza afizino. Musika, ofizio. Biola eta akordeoi karrera egin nituen, gero loradenda jarri arren. Loradenda dot lanbide, baina, musika be hortxe dago. Gustetan jatazen ofizioak dira, eta atsegina sortzen deuste.

Iñaki Uribesaldo

Iurretarra da, 39 urte daukaz.

Lorazaina da.



anboto astekariak Eusko Labelarekin batera saski bat zozketatuko du hilero



Goi-mailako elikagaiak
Alimentos de calidad superior



Arabako babarrun kilo 1, "Ibarrako Piparrak" pote 1, Ezti pote 1, Idiazabal gazta erdi, "Bizkaiko Txakolina" botila 1, "Arabar Errioxako Ardoa" botila 1, Arabar Errioxako olio birjin botila 1, Txakolin-bonboi kutxa 1 eta 30 €-ko txartel 1 Euskal Okelagatik, Euskal Esne Bildotsagatik edo Euskal Basemiko Oilaskoagatik trukatzeko.

Zenbat eta gehiago bialdu orduan eta aukera gehiago

Bidali edozein Label produkturen etiketa, Anboton argitaratzen den Label txartelarekin batera, hurrengo helbidera:

Erref.: "Eusko Label Saskia"

Anboto Astekaria • Santana, 6 • 48200 Durango

zozketa